

# Goienkaria

ASTELEHENEKO

2009ko Urriaren 5a > Astelehena > VII. urtea > 248. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Umeen garapen kognitibo eta afektiboan haur literaturak garrantzia handia dauka"

Itziar Zubizarreta  
Galtzagorri > 08



**G2a**

Maritxu Kajoi,  
gripena ez hartzeko > 29

**OSASUNA**

Haurdunaldia saihesteko pilula errezeta gabe salgai dago > 03

**EKONOMIA**

Enpresa txikiendako doako aholkularitza zerbitzua > 06

**ARAMAIO**

Madrilgo 60 bat arkitektura ikasle udalerrira aztertzen hasi dira > 11

LANA > EZBEHARRA

## Kontzentrazioak, Olandixon izandako lan istripua salatzen

**ARRASATE** Eguen gauean 34 urteko behargin bat hil zen Olandixoko tunelaren lan eremuan jausi zenean

**GAUR ETA BIHAR** ELAk gaurko agerraldia deitu du Udala plazan, 12:30ean; eta biharko, LABek Markuleten, 12:00etan

**PRESTAKUNTZA** UGT-Euskadik, berriz, istripua salatzeaz gain, enpresei eskatu die langileei prestakuntza emateko > 05

OÑATI > ERROSARIO

## Gaur bukatuko dira jaiak

Baserritar jantziei mozorroek hartuko diete erreleba gaur, jaietako azken egunean > 12-13



JENDETSUA Espainiako Gerran borrokan egindakoek, biktimek, haien senitartekoei eta udal ordezkariak esku hartu zuten ekitaldian.

JOSETXO ARANTZABAL

## Gerrako miliziano, gudari eta biktimendako omenaldia

Egun handia izan zen atzokoa Elgetan, eta halako gehiago egitea eskatu zuten, berandu baino lehenago. Intxorta 1937 Kultura Elkarteak, Lau Haizetara Gogonek eta Elgetako Udalak deituta, ideologia eta adin askotako jendetza batu zen

Intxortako Atean miliziano, gudari eta Espainiako Gerrako biktimei omenaldia egiteko. Egiaren batzordea eratzea eskatu zuten, eta 93 urteko Felix Padin gudariak azpimarratu zuen garaiak izan zirela, baina ez konbentzituak. > 04

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 04-05  
Ekonomia > 06  
Auzoak > 07  
Elkarrizketa > 08  
Iritzia > 10  
Herriak > 11-20  
Kirola > 21-28  
Kultura > 29-33  
Saillatuak > 34-35  
Denbora-pasak > 36  
Telebista-Irratia > 37  
Berri-zakua > 38-39

**BERGARA > MERKATARIAK**

## Bedelkarren azokak, harrera ona

Bedelkar Bergarako merkatarien elkarteak denboraldiko produktuekin azoka egin du asteburuan pilotalekuan. Herriko 17 saltokik esku hartu dute, eta herritar asko animatu dira azoka ikusi eta erostera. > 13


MUGARRI AUTOAK  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference


Ford Focus Sound berria  
13.850 eurogatik.


Xabier Leterekin musika-poesia saiorako sarrerak. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera



**75 dendatik eta 200 produktutik gora.**  
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.

 **MERKATUA.net** Debagoieneko denda



OSASUNA > BIHARAMUNEKO PILULA

# Botiketan errezeta gabe salgai haurdunaldia saihesteko pilula

**LARRIALDIETARAKO** Adituek argi utzi nahi dute biharamuneko pilula larrialdietarako dela, antisorgailuek huts egin edo erabiltzen ez direnerako

**ASTEBURUAK** Farmazietan eta ospitaleko larrialdi zerbitzuetan asteburuetan jasotzen dute eskari gehien; batez ere zapatu gauetan

**ARGIBIDEAK** Arrasaten pilularen gaineko informazio eskuorriak banatu dituzte farmazietan eta interneten ere eskuragarri daude argibideak

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Joan zen astelehenean hasi ziren biharamuneko pilula errezetarik gabe farmazietan saltzen. Orain arte doan ematen zuten errezetarekin, hemendik aurrera, ordea, ordaindu egin beharko da.

Biharamuneko pilula larrialdietarako da; koitua preserbatiborik gabe egin denean edo antisorgailuak gaizki erabili edo huts egin duenean bakarrik erabili behar da haurdun ez gelditzeko.

## EMERGENTZIAN

Nahigabeko haurdunaldiak saihestea da biharamuneko pilula farmazietan errezetarik gabe saltzeko erabakiaren helburua. Aurrerapausotzat jo arren, sexu heziketa indartzearen eta botikari buruzko informazioa emakumeen artean zabaltzearen beharra nabarmendu dute farmazialariek eta sexologia zerbitzuetakoek.

Arrasateko Sexologia Zerbitzuko Larriz Arandok dio larrialdi bati erantzuteko balio duela pilulak eta ondo iruditzen zaiola, baina garestiegia dela agian. "Askotan gertatzen den larrialdia izanik irtenbide bat da. Hala ere, ez dugu ahaztu behar emergentzietarako dela eta ez eguneroko antisorgailu bat. Gainera ez du hiesa, sifilisa, gonokozia... bezalako gaitasunetatik babesten. Beste anti-

sorgailuak erabiltzeko ahalegin bereziak egin arren, sarketan obseSIONaturik jarraitzen dugun bitartean, emergentziak hor jarraituko du. Eredu heterosexual eta genitalizatu hau aldatu ezean, larrialdiei erantzuten jarraitu beharko dugu", esan digu.

Bergarako farmazialari Javier Estellak esan digu errezetarik gabe biharamuneko pilula ematearena lege kontua dela eta ez diela ezertan eragiten. "Beste botika batzuekin ere esan izan digute egun batetik bestera errezeta barik emateko. Pilularen kasuan batzorde batek baloratu du zein behar sozial dagoen; hortaz, erabaki da medikamentu hori eskuragarriago ipintzea. Ez dakiguna da jendeak zein erreakzio izango duen, baina beharra duena berdin-berdin etorriko da".

## ESKAERA DATUAK

Estellak dio ez dela jende askorik joaten eurenera biharamuneko pilula bila eta joaten direnak gazteak direla. "Banaka batzuk etortzen dira, batik bat asteburuetan edo astelehenean. Baina, zorionez, ez da asko erabiltzen".

Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuko buru Mikel Sanchezek esan digu azterketa bat egin zutela pilularen erabileraren gainean. Horren arabe-

ra, erabiltzaileen batez besteko adina 23 urtekoa da; aste bukaretakoak dira eskaera gehien jasotzen dituzten egunak, zapatutik domekara bitarteko gauetan %20; eta eskatzaileen %87,8 behin bakarrik joan da, %9,1 bi aldiz eta %3 hiru aldiz.

Gerora, 2004ko irailetik 2006ko uztaileira bitartean beste azterketa bat egin zuten eta ikusi zuten emaitzak oso antzerakoak zirela. "Etorri zirenen %69a 25 urtetik beherakoak ziren. Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta informazio gutxiago izaten dute eta ohikoena da babesik gabeko harreman baten ostean etortzea; oso gutxitan apurtzen da preserbatiboa edo bestelako hutsak ere ez dira maiz izaten", esan digu Mikel Sanchezek.

DATUA

23  
URTE

Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzura biharamuneko pilula eskatzera joan diren emakumeen batez besteko adina 23 urtekoa da; eta eskatzaileen %20 zapatu gauetan joan dira.

## INFORMAZIOA ZABALDU

Larriz Arando sexologoak esan digu jendea joaten dela eurengana pilularen gainean galdetzeraz. Hori dela-eta, horren gaineko informazioa zintzilikatu dute [www.sexologiazerbitzua.com](http://www.sexologiazerbitzua.com) helbidean. Horretaz gain, Arrasateko farmazietan informazio eskuorriak ere banatu dituzte.

Bergarako Estella farmazian erabaki dute hemendik aurrera modu pribatuan galderak egitea biharamuneko pilula bila doazenei. "Lehen errezetarekin etortzen zirenean balorazioa aurrez eginga zegoen, baina orain gu gara behar hori baloratu behar dugunak. Haurdunaldi susmorik baldin badago, ezin da pilularik eman. Hortaz, asmoa ez da galdetza zorrotza egitea, baizik jakitea pilula har dezakeen ala ez", esan digu Javier Estellak.

Larrialdi zerbitzuetako buruak ez du uste eskari gehiago izango denik. "2008ko azken sei hilabeteetan eskariak gutxitu egin dira. Litekeena da orain erabilera aldatzea. Izan ere, osasun zentroetan izena eta datu pertsonalak eman behar dira eta orain, farmazietan, anonimoa da; hortaz, kontsumoa gehitu daiteke".

Pilula eskuragarriago egon arren, hartu aurretik badira ezinbestean jakin beharreko gauzak.

JAKIN BEHARREKOAK

## > ZERTARAKO BALIO DU?

Haurdunaldia saihesteko larrialdiko metodoa da. Sarketako harremanetan antisorgailuak huts egitean. Hau da, preserbatiboa apurtzen bada, beste antisorgailuren bat erabiltzen egon (partxeak, pilulak, umetoki barneko gailua, eraztunak...) eta egun horretan ahaztuz gero edo harremanak izan bitartean ihes egiten badu. Pilulak uteroaren barruko geruza moldatzen du ernaldutako obulua bertan gera ez dadin.

## > NOIZ HARTU BEHAR DA?

Susmo txikiena dagoenetik 72 ordu daude pilula hartzeko eta zenbat eta lehenago hartu orduan eta eraginkorragoa da.

## > NOLA HARTU BEHAR DA?

Urdaila beteta hartu behar da eta hiru orduren barruan botaka egin edo beherakoa izanez gero berriz hartu behar da. Behin hartu ostean, bi eguneran ez da erre behar, ezta kaferik edo kafeinadun edaririk hartu behar. Eraginkorra ez gutxitu arren albo-eraginak areagotu ditzake.

## > EZ DA ABORTU ERAGILEA

Pilula hartu aurretik haurdunaldia gertatu bada, pilulak ez du eraginik izango.

## > ALBO-ERAGINAK

Buruko eta sabeleko mina, botagura, itolarria... ager daitezke kasu batzuetan, baina minok ez dute egun bat edo bi baino gehiago irauten.

## > NOLA JAKIN DAITEKE ONDO FUNTZIONATU DUEN?

Jakiteko hurrengo hilerokora arte itxoin behar da. Baliteke aurrertzea, atzeratzea edo ohi baino odol gehiago edo gutxiago botatzea. Hilerokoa 10 egun baino gehiago atzeratuz gero, ginekologoarengana joatea komeni da. Gauzak ondo egin ezean, baliteke bere lekutik kanporako haurdunaldia gertatu izana eta kasu horretan kendu beharra dago.

## > EZ DA METODO ANTISORGAILUA

Larrialdi kasuetarako da biharamuneko pilula eta ez eguneroko metodo antisorgailua. Sarketa bidezko sexu harremanak izan behar dituenak eraginkorra den metodo antisorgailu bat aukeratu behar luke.



FARMAZIAK Bergarako Estella farmazian astelehenean hasi ziren biharamuneko pilula errezetarik gabe saltzen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

OROIMEN HISTORIKOA &gt; ESPAINIAKO GERRA

# Gerrako miliziano, gudari eta biktimei omenaldia egin zieten Intxortako Atean

Ideologia eta adin desberdineko jendea batu zen topagune esanguratsuan

Egiaren batzordea eratzeko eskaera egin zuten parte-hartzaile guztiek

IKER BARANDIARAN &gt; ELGETA

Jende asko batu zen domeka eguerdian Elgetan dagoen Intxortako Atean, Lau Haizetara Gogoan-ek, Intxorta 1937 Kultura Elkarteak eta Elgetako Udalak egindako deiarri kasu eginda. Ez zen harritzekoa hainbeste jende ikustea; izan ere, Espainiako Gerra bizi izan dutenei eta haien senide eta lagunei egin zieten gonbidapena. Hala, adin eta ideologia askotako jendea batu zen. Han ikus zitezkeen CNT, Errepublikak, PCE-EPK, EAE-ANV, Gazte Komunistak, Euskal Herriko Antifaxistak eta Euskal Presoak Euskal Herrira leloak zeuzkaten bandera eta ikurrinak, besteak beste. Horrez gain, ibarreko hainbat udaletako ordezkariak ere ekitaldian izan ziren.



Espainiako Gerran borrokatu zirenak eta gerra sufritu zutenak izan ziren protagonistak, halaberrez.

JOSETXO ARANTZABAL

**GARAITUAK, EZ KONBENTZITUAK**  
Ekitaldi hunkigarria izan zen, gaiak jende askorengan eragiten duelako, sufrimendu asko barneratuta dagoelako eta baita une

gogor haiek bizitakoek eta senideek ere esku hartu zutelako.

Arrasateko Zutik-eko zinegotzi eta Intxorta 1937 Kultur Elkarte kide Julia Monjek *Isilpeko*

*emakumeen* aldeko hitzak izan zituen: "Ezin dugu ahaztu faxisten genozidioan emakumeek ere sufritu zutena; besteak beste, bortxaketak, ile mozketak, errizino-

olioaren tratamenduak, diru barik eta alargun, familia handiak aurrera atera behar izatea... Haien testigantzak ere jaso behar ditugu, eta bizi izan zutena eza-gutzera eman".

Horren ostean, frankistek aita fusilatu zioten Jose Luis Uribe-salgo arrasatearrak gogo betez abestu zuen erbestean behin eta berriro kantatutako abesti hunkigarri bat.

Haren ondotik Bilboko Felix Padin gudariak hartu zuen hitza. Otxandion borrokatu zuen eta gero preso hartu zuten. Padinek 93 urte dituen arren, testigantza lazgarria azaldu zuen, eta frankismoaren eta gaur egungo gobernuen kontrako hitz gogorak izan zituen, "batzuen bidegabekeriak besteak estaltzen dituztelako". Horrez gain, azpimarratu zuen garaiak izan zirela, baina ez konbentzituak; eta ez duela mendeku ezta gorrotorik gura, egia eta justizia baizik.

Elgetako alkate Oxel Erostarbek eta Lau Haizetara Gogoan-eko Xabier Zubizarretak ere hitz egin zuten, hurrenez hurren. Biek azpimarratu zuten Egiaren batzordea eratzeko premia handia dagoela, eta Gerran sufritu zutenak ere biktimek direla. Zubizarretak zigorgabetasunari harresiak jartzeko eskatu zuen.

POLITIKA &gt; MOBILIZAZIOAK

## Aurreko asteko gertaerak salatzen agerraldiak izan dira

Aretxabaletan prentsaurrekoa egin zuten; eta Arrasaten, kale agerraldi isila

I.BARANDIARAN/M.BITERI > ARRASATE  
Manifestazio ixila eta jendetsua egin zuten eguen arratsaldean, *Utzi bakean Arrasate* lelopean. Ehunka lagunek esku hartu zuten eta ez zen inolako arazorik ez isturik izan. Komunikabide askok jarraitu zuten agerraldia.

Arrasatear ugarik bat egin zuten joan den zapatuan, hilaren 26an, udal ordezkari, tabernari, preso senide eta bestelakoek pasa den eguenerako, urriaren 1erako, egindako deialdiarekin. Hala, 19:15 aldera, manifestazio jendetsu bat irten zen Herriko Plazatik, udaltzainek gidatuta. Ertzaintzaren hainbat furgoneta zeuden herriko hainbat puntutan

kokatuta, baina manifestazioa baimenduta zegoen, eta ez zen inolako arazorik izan.

**ELKARRIZKETA ETA NEGOZIAZIOA**  
Manifestazioaren bukaeran, antolatzaileek arrasatearrei esker eman zizkieten *Utzi bakean Arrasate* eskaerarekin bat egiteagatik, eta Barne Sailaren eta Audientzia Nazionalaren jarraia salatu zuten. Horrez gain, elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko eskaera egin zuten, eta herritarrei bide horretan indarrak batzeko eskatu zieten.

**ARETXABALETAN, AGERRALDIA**  
Bestalde, egun berean, adin askotako hainbat lagun bildu ziren Aretxabaletako Herriko Plazan, ezker abertzaleak deituta, irailaren 26an Ertzaintzarekin gertatutako salatzen.

Zapatu horretan Iturrigorri pilotalekuan bizitako "ez zela izan kasualitatea" aipatu zuten.

Hala, Jaurlaritzak Ertzaintzari herriko jaiak "pikutara bidaltzera" agindu ziola salatu zuten. Gaineratu zuten frontoian egindako bazkariaren "asmo bakarra" euskal preso politikoei elkartasuna adieraztea zela. Horren hari, nabarmendu zuten elkartasuna "ez dela delitua" eta ez dutela lortuko elkartasun keinuak "isilaraztea".

Han atxilotu zituzten lau lagunei ere "babesa" eskaini gura izan zieten plazan bildutako herritarrek. Gogorazi zuten atxilotutako hiruri, presoekiko elkartasuna adierazten duten pegatinak soinean eramateagatik, terrorismoa goraipatzea leporatzen dietela eta orain zigorraren zain daudela.

Eguenean bertan, bestalde, Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok Bergarako epaitegira joan behar izan zuen, zapatuko atxiloteten eta gertaeren gainean deklaratzeko.



Ehunka herritarrek esku hartu zuten manifestazioan.

IKER BARANDIARAN



Hainbat lagun bildu ziren eguenean, Aretxabaletako plazan.

MIRIAN BITERI



Udalatx mendiaren azpitik pasatuko da lotura.

GOIENKARIA

AZPIEGITURAK > AHT

# Elorrio, Bergara eta Arrasateko loturaren proiektua esleitu dute

Azterketa geotekniko eta ikerketa geologiko-geoteknikoen gaineko proiektua egiteko 4,42 milioi euro bideratuko ditu Adif-ek

M.B. > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) lanen harira, Adif Espainiako trenbide azpiegiturak kudeatzen dituen enpresak, Arrasate, Elorrio eta Bergara arteko loturan, azterketa geotekniko eta ikerketa geologiko-geoteknikoen gaineko proiektua idazteko

esleipena egin zuen joan den astean. Espainiako Gobernuak Euskal Autonomi Erkidegoan duen ordezkari Mikel Cabiecesek nabarmendu zuenez, besteak beste, azterketa geoteknikoen idazketa, eraikuntza proiektua eta sarbideak eta lan osagarriak egingo dira. Horretaz aparte, "eraikuntza lanetarako eredu izango den ikerketa geologiko-geoteknikoaren idazketa" ere aurreikusiko da egitasmo horretan.

**4,4 MILIOI PROIEKTUA IDAZTEKO** Proiektuaren aurrekontuaren berri ere eman du Cabiecesek. Hala, lan guzti horiek egiteko 4,42 milioi bideratuko direla jakinarazi du. Ikertuko den

zatiak, guztira, 32,3 kilometroko luzera du; horietatik, 21,3 kilometroko luzera izango duten sei tunel eraikiko dira ingurune horretan.

**2010. URTEAN, 218 MILIOI** Bestalde, Espainiako Gobernuak 2010 urterako prestatu dituen aurrekontuen gaineko proiektuan, 218 milioiko partida aurreikusiko dute AHTaren eraikitze lanetarako. Garraioen azpiegituretako eta ingurumenerako, Euskal Autonomi Erkidegora, guztira, 378 eta 70 milioi hurrenez hurren bideratzeko asmoa du Jose Rodriguez Zapateroren Gobernuak; esan bezala, 218 milioi *Euskal Y*-rako dira.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > 'zuzen@goiena.com'

## Zapatakada dialektikoak

Ostikadak ematea ohiko kirola izaten zen umetan. Ez bakarrik baloiari; haserrealditan lagunari eta zer esanik ez, beste kuadrilakoei ere bai.

Gaur ez dakit hurrek biolentzia adierazpen horiekin jarraitzen duten ala ez. Nagusien artean, ordea, modan jarri da oinetakoa etsaiari jaurtitzea. Beharbada zailagoa izango da ostikada jaso behar duenarenganaino iristea eta modu alternatibo hau asmatu dute batzuk.

Hitzaldia ematen dabilena ez dela gustuko, edo dioena ez zaigula gustatzen...jaurti oinetakoa eta kitto!

Nikita Krushev izan omen zen oinetakoaren ahalmen dialektikoa erakusten lehena. Nazio Batuen batzar batean diskurtsoa ematen zebilela, kendu oinetakoa, eta inguruko guztiak zur eta lur utzi omen zituen. Ez dakit bozketarik egon ote zen, eta ezta ere irabazi zuen ala ez.

Berriki, kazetari irakiarrek Bushen aurka, eta ikasle turkiarrak Moneta Fondoaren lehendakariaren aurka erabili dute sistema irmo hori.

Ze arrazoi izango ote zuen Turkiako ikasleak horrela jokatzeko? Espainia bezala kokatuko ote zuen Turkia ekonomien azkeneko bagoian NMFk?

Seguru Espainian ere arduradun ekonomiko batek baino gehiagok izan duela tentaldi hori. 2010ean ez naizela atzeralditik aterako? To zapatakada!

**"Modu alternatiboa asmatu dute haserrea agertzeko"**

**> Galzorian** Zorionak Pello!. Baina hirekin batera, gure herrietan oraindik geratzen diren Pello guztiak ekarri nahi ditut gogora: dohainik herrigintzan ari diren guztiak. Galzorian dagoen animalia bitxia.

**> Dohaineko denbora** Laixanekin ikusi dugu zein urria den *Pellus Sapiensa* gaur egun. Dohaineko denbora hori nahiago dugu gure buruari eskaini. Bakar-ka edo familian egiten diren ekintzek eramaten dute gaur gure denbora.

LANA > EZBEHARRA

# Sindikatuak kontzentrazioak deitu dituzte Olandixon lan istripuan hildakoa salatzeko

Eguen gauean 34 urteko langile bat hil zen Olandixoko tuneleko lanetan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Eguen gauean, 22:45ean, 34 urteko langile bat hil zen Arrasateko mendebaldeko saihesbideko

lanetan, Olandixoko tunela egiten dabiltzan puntuan, hain justu. Laneko segurtasun eta osasunerako Osalan euskal erakundeak jakinarazitakoaren arabera, behargina hondatzeako makina bat gidatzen zebilen gain baten; halako baten, makina irauli egin zen eta ondorioz behargina behera jausi zen. Osasun zerbitzuek erietxera eramán zuten zauritutakoa eta han hil zen.

**KONTZENTRAZIOAK**

ELA sindikatuak kontzentrazioa deitu du gaurko, astelehena, 12:30ean. Udala plazako biribilgunean (Munar parean) egingo dute. ELAk salatu du ezegonkortasuna langileen segurtasun falta eragiten duela.

LAB sindikatuak, berriz, biharko, martitzena egin du deialdia. 12:00etan Markuleteko pabiloien parean, bide eskiñan, kon-



Istripua izan zuen langileak gidatu zuen hondeatzeko makina.

LARRAITZ ZEBERIO

zentrazioa egingo dute Olandixoko lan istripua salatzeko.

UGT-Euskadik, berriz, ez du halako ekimenik iragarri, baina istripua salatu du. Horrez gain,

enpresei eskatu die langileendako lan arriskuen gaineko beharrezko prestakuntza emateko; eta baita langileek erabiltzen dituzten makinaren gainekoa ere.

ENPRESA &gt; AHOLKULARITZA

# Enpresa txikiendako doako aholkularitza zerbitzua martxan da

Mankomunitatearen ekimen bat da, INEM-Tokiko Erakundeak hitzarmenaren bidez

Sei langabe kontratatu eta prestatu ditu Mankomunitateak aholkularitza emateko

JULEN IRIONDO-LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu sektoreko enpresa txikiendako eta autonomoendako aholkularitza zuzen, pertsonalizatu eta dohaingo Etegest delako zerbitzua martxan jarri du Debagoieneko Mankomunitateak, INEM-Tokiko Erakundeak hitzarmenaren babesean. Hori emateko, langabezia zeuden sei lagun kontratatu ditu Mankomunitateak, zeregin horretarako prestakuntza eman die, eta, orain, zerbitzu hori ematen jardungo dute. Egun erdiz egingo dute lan.

HELBURUA, HOBEKUNTZA

Mankomunitateko Garapen Agentziako zerbitzu buru Koldo Azkoitiak azaldu du zertan datzan Etegest zerbitzua, eta prozesua zein izango den: "Helburua da norbere negozio edo enpresa kudeatzeko trebezia edo erreminta batzuk erakustea, eta kudeaketa zertan hobetu dezakeen azaltzea". Horretarako, "lehenengo diagnostikoa egingo dute, eta antzemandako dute zertan hobetu daitekeen; eta, horren arabera, aholku pertsonalizatuak egingo dizkiote enpresaburu edo merkatarari horri".

Azkoitiak hau argitu nahi du: "Zerbitzua ez da enpresa horiek izan dezaketen aholkularitza zerbitzu profesionalak ordezkatzeko, baizik eta enpresa txikiei jakinarazteko euren negozioa une horretan zelan dagoen eta ze etorkizun izan dezakeen. Enpresa horiek jarraituko dute euren aholkularitza profesionala izaten".

DIAGNOSTIKO TXOSTENA

Lehenengo fasea, diagnostikoa, enpresan bertan egingo da, Debagoieneko Mankomunitateko teknikarien laguntzarekin. E-maila hori txosten bat izango da, eta hor, antzemandako gabezia eta arazoei erantzuteko hobekuntza proposamenak ere jasoko dira. Hobetzeko arloak hauek izan daitezke: antolaketa, planifikazioa eta ekoizpena; komertzializazioa eta salmenta; finantza eta ekonomiaren kontrola; edo informazio eta komunikaziorako teknologia berriak.

Bigarren fasean, hobekuntza proposamenetatik abiatuta, hainbat motatako aholkularitza pertsonalizatu eskainiko da: lan

ESANAK

"Helburua da enpresa kudeatzeko tresna batzuk erakustea, eta kudeaketa zela hobetu dezaketen ikustea"

Koldo Azkoitia > Mankomunitatea

tresnak proposatu (diruzaintza, emaitzen kontua...); programa, laguntza eta dirulaguntzen gaineko informazioa; edo formazioa.

INFORMAZIOA ESKA DAITEKE

Orain, Mankomunitatea bailarako merkatarien elkarteengana zuzendu da Etegest zerbitzua eskaintzera, "eta momentu honetan horiek dute lehentasuna", dio Azkoitiak; baina, jakina, ez da horietara mugatuko. Informazio gehiago nahi dutenek 943 79 30 90 telefonora deitu edo *enpresa@debagoiena.net* helbidera mezua bidal dezakete.

KOOPERATIBAK &gt; EROSKI TALDEA

## Eroski Taldeak 46 milioi euro galdu ditu lehen seihilekoan

Hala ere, galerak erdira jaistera lortu du banaketa taldeak, 2008ko bigarren seihilekoan 88,8 milioioko galerak izan zituen-eta

L.K. > ARRASATE

Eroski Taldeak 46 milioi euroko galerak izan ditu urteko lehen seihilekoan, Espainiako Baloreen Merkatuko Batzordeari (CNMV) aurkeztu dizkion kontuen arabera. Datu horrek alde ona ere badauka, ordea: galerak aurreko seihilekoan izandakoen erdiak dira, 2008ko bigarren seihilekoan 88,8 milioi galdu

zituen-eta. 46 milioioko galera horiek otsailaren 1etik uztailaren 31ra arte egindako kontuek utzitako emaitza dira.

KRISIAREN UNE TXARRENEAN

Eroski Taldeak galera horiek egozten dizkie krisi egoera "bere txarrenera" ailegatu izanari epe horretan, eta horren ondorioz kontsumitzaileak gutxiago ero-

si izanari. Horri erantzun nahian, Eroskik prezio baxuko politika indartzea erabaki zuen, eta horrek eragin zuen kontsumitzaileek gastu txikiagoa egitea.

Eroskik gaineratzen du bere denda sarea Espainiako merkatuaren egoerari moldatzen jarraitzen duela, eta horrek aparteko gastuak eragin dizkiola.

ZORRAK BERREGITURATU

Bestalde, CNMVri jakinarazi dienez, Eroski Taldeak bere hartzekodun nagusien adostasuna lortu du Taldearen zorrak berriz finantzatzeko.



Arrasaten dagoen Eroski saltoki handia, zapatu arratsaldean.

JOSETXO ARANTZABAL



Gipuzkoa osoan, 206 ume daude 177 harrera-familiatan.

GOIENKARIA

JENDARTEA > ADIN TXIKIKOEN HARRERA

## Asteburu eta oporretarako harrera familiak behar dira

Aldundiaren etxeetan dauden umeak har ditzake Gipuzkoako edozein familiak

baten maitasunaz goza dezaten eurek ere", azaltzen du Beroako psikologo Leticia Martinek.

HOGEI UME DAUDE ZAIN

Modalitate honek erraztasunak ematen dizkie harrera-familiei, aldi jakin batzuetarako delako, eta anai-arrebak banandu daitezkeelako. Martinek dioenez, "20 bat ume daude orain harrera mota hau behar dutenak. Harrera-familiak ume txikiak nahi izaten dituzte, eta adin bat duten umeek ez dute familia baten egoteko aukerarik izaten". Konpromisoa urte baterako da, "eta hori luza daiteke, edo baliteke tartean ume horrek behin betiko harrera familia bat topatzea", azaltzen du psikologoak. Abuztuaren 31n, 206 adin txikiko zeuden 177 familitan, beste harrera programa batzuetan.

Informazio gehiago: 943 24 56 04 (Beroa Elkarteak) edo 688 63 25 42 (Leticia Martin).

L.K. > BERGARA

Debagoieneko familiek -edozein motatako familia-unitateek- izena eman dezakete dagoeneko Gipuzkoan Foru Aldundiaren zaintzapean dauden adin txikikoak hartzeko, harrera modalitate berri baten: aste bukaerarako eta opor sasoiatarako. Dei hori egin du Beroak, Gipuzkoako Harrera Familien Elkarteak.

"Helburua da dagoeneko hain txikiak ez diren umei -7 urtetik gorakoak, baina gehienak 9-10 urtetik gorakoak- aukera ematea bizi diren harrera-etxetik irten eta beste bizi-modu bat egin dezaten, familia-erreferentzia batekin; familia

auzorik auzo

**BEDOÑA** > Arrasateko hegoaldean, Kurtzetxikiren beste aldean, 400 metro inguruko garaieran dago Bedoña auzoa. Aretxabaleta eta Oñatirekin muga egiten du Bedoñak. Ikuspegi zoragarriak dituen auzoa da.



Mariasun Garai, Bedoña auzoan; atzeko aldean eliza dago.

GOIENKARIA

Mariasun Garai > Bedoñako auzo-alkatea

## "Udalez Arrasatekoak gara, baina askok aretxabaletarrak garela aitortzen dugu"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE  
Mariasun Garai da Bedoñako auzo-alkatea azken urteotan. Aitortu digu lan asko egin behar dela auzotarren beharrak asetzeko, berez ez da ezer lortzen-eta. Behar horiek zeintzuk diren azaldu digu.

**Orain gutxira arte (1966), Aretxabaletako auzoa izan zen Bedoña. Nola gogoratzen duzue aldaketa hori eta zergatik egin zen?**

Hemen luzeegi geratuko litza-teke eta informazio hori nahi duenari *Malbe* liburua irakurtzea gomendatzen diot. Alde batetik informazioa eta bestetik ondo pasatzeko aukera duelako.

Esan behar da gure irteera naturala Arrasatera dela. Udalez Arrasatekoak gara, baina auzotar askok aretxabaletarrak garela aitortzen dugu, horrela dauka-gu-eta nortasun agirian.

**Zein da auzotarren kezka nagusia?**

Errepidea zabaldu nahi dugu. Premia handikoa da lan hau, eta momentu honetan prozesuan sartuta gaude. Egunerokotasunean ere beti agertzen dira arreta jarri eta jarraipena egin beharreko kontuak han eta hemen: urak ez doazela bide egokitik, zerbait konpondu beharra... mila gauza agertzen dira.

**Instalazio egokiak dituzue?**

Gabeziak ditugu; besteak beste, saneamendu sarea, gasa, Internetarako konexiorako aukerak, zuntz optikoa, garraioa... Kontu hauek lortzeko lan egin beharko da, berez ez da hemen ezer lortzen-eta.

**Eraikinei dagokienez, zer dago ikusteko auzoan?**

Arkitektonikoki eraikin garrantzitsuak daude auzoan monumentu izendapena hartzeko bidean daudenak; adibidez, Santa Eulalia eliza bere ezaugarri erromanikoekin. Baita baserriak ere: Zabale, Bidasoro...

Auzotik Zubillagarako bidean dagoen Andramarizuri ermita ere ikustekoa da.

**Zer eskaintzen dio auzoak bisitariari?**

Auzoa bera da ederra, ikuspegi zoragarriak ditu edozein lekutan zaudela ere. Mendi ton-

tor asko ikus daitezke: Aloña, Kurtzebarri, Etxaguengo haitzak, Anboto, Murugain, Udaltx... Oinez zein bizikletaz egiteko ibilbide oso erakargarriak ditu Arrasatera, Oñatira, Urkulura, Aretxabaletara... eta gehienak seinalatuta daude.

Jatetxea ere badago, baserriko ogiz egindako ogitartekoak nahiz jatorduak dastatzeko. Baserriko produktuak eskuratzeko ere: barazkiak, gazta, baserriko ogia, txakolina... aukera bikaina dago. Eta lagunekin taldean jolasteko *paintball* zelaia dago auzoan.

**Auzoko jaiak Santa Eulaliak dira. Nola ospatzen dituzue?**

Jaiak asteburuaren 10ean dira, baina asteburuan ospatzen ditugu: auzo-afaria, bertsolariak, haur jolasak, lehiaketak, ikuskitzuna, dantzariak... egoten dira. Aurrekontu eskasa izaten da eta antolatzaileek lan handia egiten dute jaiak prestatzen.

Santa Ageda kantuan auzoko mutilak ateratzen ziren antzina, baina hori galdu egin zen. Azken urteotan errekuperatu egin nahi izan da haurrak kantuan ateraz gurasoen laguntzarekin.

**Badago auzoan pertsonaia famaturik?**

*Loramendi* poeta, Juan Arana Ezpeleta auzokoa zen, Mendibitzu baserrikoa.

ASTELEHENEN  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Urriko zozketa

Sariak irabazteko

**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 20 euro

**XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK**



Bidali AG ESPALOIA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



**LIBURUA**



Bidali AG ATXAGA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



**KAMISETA**



Bidali AG KAMISETA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



**MP3 BAT**



Bidali AG EROSKI  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG NO11**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, hailer zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

'Bularretik mintzora' egitasmoa | tin tartean), AEBetan, Britainia | egitasmoen ildotik. Irakurketa | egin bezala, Galtzagorri elkar-  
iaz jarri zuten abian Euskal | Handian, Italian, Suedian eta | ohiturak sustatzea da kanpai- | teak Aramaion jarriko du kan-  
Herriko hainbat herritan (Oña- | Katalunian egindako antzeko | naren helburu nagusia. Oñatin | paina abian.

Itziar Zubizarreta > Galtzagorri elkarteko kidea eta irakaslea

# "Umeen garapen kognitibo eta afektiboan haur literaturak garrantzia handia dauka"

A. BARRUSO/E.MENDIBIL > BERGARA

**Bularretik mintzora** kanpaina abian jarriko dute Aramaion urriaren 15ean. Donostiako Galtzagorri elkartearen eskutik, 0-6 bitarteko haurrengan -gurasoen eta haurren hezitzaileen laguntzarekin- irakurketa ohiturak sustatzea da kanpainaren helburu nagusia. Galtzagorri elkarteko Itziar Zubizarretak azaldu dizkigu kanpainaren nondik norakoak.

## Nola eragiten du irakurketak haurren garapenean?

Irakurketa zentzu zabalean ulertu behar da. Jaio baino lehen hasten da haurra heltzen zaizkion mezuak ulertzen, eta jaiotakoan estrategia guztiak erabiliko ditu hizkuntza ulertzeko eta garatzeko, mezua ulertzeko. Izan ere, badaki nolabait *irakurtzen* gurasoen ahotsaren tonuaren edo intonazioaren arabera. Berehala hasten da hori garatzen. Irakurtzea, azken baten, interpretatzen jakitea da, esan nahi digutena bereganatzea.

Hain zuzen ere, kanpainaren oinarrietako bat entzumena da. Haurdunaldiaren laugarren hilabetean hasten dira umeak entzumena garatzen; amaren ahotsa beraiena balitz bezala jasotzen dute eta jaio ondoren, aitarena, kanpotik datorrena, ezagutzen saiatzen dira. Entzumenaren bidez atentzioa, gogoia eta jakinmina garatzen dituzte. Isiluneak ere garrantzitsuak dira harremanak eta komunikazioa garatzeko.

## Kanpaina honetan 0-6 bitarteko haurrak hartzen dituzue kontuan.

Nonbaitetik hasi behar duzu eta adin tarte egokia da hori. Gurasoen eta irakasleen ekinetek izugarritzko garrantzia daukate haurrengan adin horretan, nortasuna garatzen dabiltzalako haurrak, balore intelektualak, moralak eta sozialak hain zuzen. Alde horretatik, gurasoen eta hezitzaileen transmisioak garrantzia handia dauka.

## Haur literaturak zer nolako garrantzia dauka transmisio prozesu horretan?

Haurrari zuzenean iristen zaizkion mezuak, uler ditzakeenak bidali behar zaizkio eta alde horretatik haur literaturak sentimenduekin lotura handia dauka, ulergarriak diren mezuak, ukitzen dizkietenak aurkitzen dituelako haurrak. Beharrezko-



Itziar Zubizarreta Goiena Tebistan izan genuen aurreko astean, *Bularretik mintzora* kanpainaren berri ematen.

ARRITXU BARRUSO

ak dituen tresnak garatzen hasi da eta haur literatura lagungarri zaio.

**Gurasoak eta irakasleak heziko dituzue Aramaion. Bien arteko elkarlana ezinbestekoa da, ala?**

Elkarlanean gizarte osoak behar luke honen alde. Euskal Herrian aurrera eramaten gabiltzan kanpaina honetan, bitartekari onenak eta egokienak gurasoak eta hezitzaileak dira. Transmisioa profesionalen esku uztea burugabekeria da. Azken batek ama baten daki ondoen haur batek zer, nola eta noiz behar duen. Irakaslearen kasuan, beste horrenbeste gertatzen da haren menpe dauden ikasleekin.

Gurasoekin saio txiki batzuk egingo ditugu, haurrari nola irakurri, nola kantatu behar den erakusteko eta bibliografia egokiena zein izan daitekeen ikusteko.

Beldurra, gosea eta bestelako gatazkei aurre egiten laguntzeko, gatazkak gainditzeko primeran

## ULERMENA

**"Jaiotakoan estrategia guztiak erabiliko ditu haurrak hizkuntza ulertzeko eta garatzeko"**

## TRANSMISIOA

**"Transmisio prozesuan, bitartekari onenak eta egokienak gurasoak eta hezitzaileak dira"**

## NEURTUA

**"Lehenengo egunetik guraso eta irakasleengandik datuak jasotzen ditugu; aztertu eta ondoriak ateratzeko"**

dator haur literatura. Zer esanik ez ondo pasatzeko eta irudimena lantzeko. Guztiz gomendagarria da haur literatura.

## Ipuinak kontatzeko ohitura galtzen dabilela uste duzu?

Galdu ez, baina aldatuz joan dela esango nuke. Kontalarien desplazamendu bat eman da nolabait. Ez dut telebistaren gainean gauza txarririk esango; telebistak bere tokia du, bideo-kontsolek duten bezala. Baina batzuetan alde batera uzten ditugu oinarri-oinarrizko gauzak.

Espazio batzuk topatu behar ditugu. Ordenagailuak ez dio ipuinari lekua kentzen, kaleari kenduko dio agian. Edozelan ere, nahiz eta gaizki kantatu, gurasoek haurrari kantatzea kasetea jartzea baino hobea izango da beti, aberasgarriagoa, igoerentzat zein hartzailearentzat, harremanak sendotzeko mesedegarri izango da-eta. Horixe da helburua, gurasoen eta haurren arteko lotura sendotzea.

## Bularretik Mintzora kanpainaren beste berezitasuna da egitasmo neurtua dela.

Berezitasun garrantzitsuena dela esango nuke, beste antzeko egitasmoengandik bereizten duena. Neurtua da; hau da, lehenengo egunetik datuak biltzen ditugu. Guraso eta irakasleekin elkartzen garen lehenengo momentutik informazioa jasotzen dugu. Datu horiek aztertu egiten dira eta ondoren emaitzak eta ondorioak aurkezten ditugu herrizherri. Informazio hori oso garrantzitsua da.

## Noiz jarriko duzue kanpaina martxan Aramaion?

Aramaion urriaren 15ean hasiko dugu, Pello Añorgak gurasoei zuzenduta emango duen ikastaroarekin. Urriaren 15, 22, 28 eta 29an izango dira eskolak, 18:00etan. Ondoren, Juan Karlos Alonso psikologoaren hitzaldia etorriko da, azaroaren 3an; eta Juan Kruz Igerabideren hitzaldia azaroaren 18an.



**GURE WEB GUNEARI BIZITASUNA  
FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON  
SARTU DUGU BARRUAN.**

**gazte** kutxa

Aholkulari pertsonala,  
bizi-bizi eta aurrez aurre,  
behar duzun guztirako.

Telefono, bideokonferentzia  
edo txat bidez.

**10etatik 10etara**  
bezero izan nahiz ez  
**gazte**kutxa.net

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

## kale inkesta

Langabeen kopurua %11tik gorakoa da gurean. Kezkatzen hasita gaude? Nahikoa laguntza daude?



Jose Makazaga  
Langilea  
Aretxabaleta

Bai, langabe kopurua gora doa eta gero eta beldur handiagoa dago inguruan. Krisiak luze joko duela uste dut eta konponbide gaitza duela. Eta gobernuak ematen dituzten laguntzak ez dira nahikoa.



Nuria Fdz. de Arroiabe  
Langilea  
Aretxabaleta

Ez dakit guztiz sinistu dugun krisia ailegatu denik. Lanak behera egin du, baina oraindik dirua badago eta ez dugu uste egoera oso larria denik. Neure zalantzak dauzkat laguntzak behar diren lekura iristen diren.



Yassin Benomar  
Langilea  
Aretxabaleta

Bai, beldur apur bat badago, gero eta jende gehiago dagoelako lan barik. Gainera, luzerako izango da krisia. Uste dut gobernuak zerbaitetan badabiltzala, baina ez du konponbide samurra arazoak.



Mari Carmen Pardo  
Langilea  
Aretxabaleta

Bai, jendeak beldurra du eta inoiz ez bezala dirua aurreratzen hasi da. Hala ere, gurean ondo gaude, beste leku batzuetan askoz okerrago dauke. Laguntzak iragarri bai, baina gero jasotzeko oztupoak jartzen dituzte.

## irakurlearen txokoa

943 25 05 05  
goienkaria@goiena.com

## ESKORIATZA

## &gt; Donostiatik datorren autobusa Eskoriatzaraino.

"Ordua zen", esan digu eskoriatzar batek. Aste honetan hasita Eskoriatzaraino joango da Donostiatik datorren autobusa: "Arrasateraino ekarri eta beste autobusa bat hartu behar izateak etxera iristeko ez zuen inolako zentzurik", dio.

Eta Gasteizera autobidetik joaten den autobusa laster, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik pasatuko dela irakurri du: "Linea bizkorra izan gura dutelako ez da pasatzen orain? Aretxabaleta eta Eskoriatzatik geratzeak zenbat atzeratuko du bada?".

## ARETXABALETA

## &gt; Motorrak espaloi gainetan aparkatuta.

Aretxabaletar bat gogaituta dago espaloi gainean aparkatuta egoten diren motorrekin. "Zapatu goizean okindegi alboan zegoen bat, traban. Eta gero eta gehiago direla konturatuta nago", esan du. Udaltzainek esku har dezatela eskatzen du, "horiek ez dutelako aparteko baimenik espaloi gainetan egoteko".

## BERGARA

## &gt; Bedelkarrek antolatutako azoka.

Idea bikaina dela produktuak erakusteko azokak antolatzea diosku aretxabaletar batek, Bergaran egin dutena modukoa. "Ez bakarrik merkealdietako produktuak kentzeko, denboraldi hasierakoak erakusteko ere bai". Eta beste herri batzuetako merkataria animatu gura ditu halakoak antola ditzaten.

## ustek uste

Goiatz Arana

Ez da posible izan, Madril

Egubakoitzean, Euskal Herrian arratsaldeko zazpiak inguru zirenean, dei bat jaso nuen Kataluniatik. "Ha salido Rio" esan zidan, laster. Euririk ez du egin eta, non atera da, bada, erreka? galdetu nion nik. Eta 2016ko Joko Olinpikoek Rio de Janeiro ospatuko direla argitu zidan orduan. Madril atzean geratu zela-eta, pozik zen kataluniarra.

Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren jakinarazpenak dantzan jarri zuen Brasil. Hori bikain egin dute; munduko kirol ekitaldirik handiena antolatzen zer moduz moldatzen diren orain ikusiko dugu. Azpiegiturak eta segurtasuna ei dira euren ahuldadeak; 2016ko abuztura arteko epea dute horiek hobetzeko. Herrialdearen garapenari bultzada bat emateko baliatuko dutela aukera esan du Da Silva presidentek. Ea hala den.

Bien bitartean, triste dago Madril, beste batzuen pozerako.

## zorroztailea



Larraitz Ugarte

Non duzue Jon?

"Bidean antzeman ei zuen Espainiako polizia talderen batek trenetan zihoala. Trenetik jaitsi eragin ostean, Donostiako militantea poliziek bahitu ei zuten; eta jarraian legearen kontrako galdeketa saioak egin zizkioten. Galdeketa horietako baten hil egin ei zen donostiarra".

Gara &gt; 2009-10-02



Badakigu bahitu zenutela, badakigu hil duzuela. Euskal Herrian guztiok bagenekiena konfirmatu zaigu. Hala egin du zuzen Gara-k ostiraleko edizioan eta hala egin du besteen isiltasunak. Inork gutxi sinetsi ditu Rubalcabak emandako bertsio ahulak: buruko gaixotasun larria duenak, ia guztiz itsu, trena hartu eta diru kantitate batekin ihes egitea ez da sinagarria. Are gutxiago, pertsona horren ibilbidea ezagututa. Baina, batez ere, espainiar indarren ibilbidea ezagututa. Historikoa eta azken aldikoa. Inork gutxi sinisten du herri honetan espainiar indarren legaltasunean, inor gutxi konbentziturako dute Jon Antza ETako kidea Baionatik Tolosarako bidean bahitu, galdekatu, torturatu, erahil eta lurperatu ez dutenik. Ez dugu Gara-ko iturri horien identitatea ezagutu beharrik, bertsio hori egia dela jakiteko. ETak egiten dituen gauzen erantzukizuna hartzen du. Estatuak inoiz ez.

Kontsiderazio moralen gainez, galdera batzuek ez naute bakean uzten: zertarako du Espainiako Estatuak gerra zikina erabili beharra legalki nahi duen gutzia egin ahal eta egiten ari denean, legeak, epaileak, fiskalak eta polizia herri oso bat suntsitzearen zerbizura daukanean? Zer espero daiteke Estatu batengandik bere hiritarrak babesteko izan beharrean, hauek torturatu, akatu eta bizi osorako gartzeleratzen dituzte eta horien argazkiak euren ama edo lagunek atera ezin dituztenean, eta horren aurka duedela adierazteko manifestazio eskubidea ere ez dutenean? Zer espero daiteke Espainiarengatik, Jon Antzaren argazkia ateratzea legez kontrakoa bada, baina berau bahitu, galdekatu eta erahiltzea dohakoa?

Jon, Lander, Alain, Juan Mari, Dani... Zerrenda luzeegia denak gezurretan aritzeko, luzeegia herri-erakundeetan ordezkari izateko beste aldera begiratzeko. Bada ordua giza eskubideekiko konpromisoz ahoa berotzen duzuenok gertaera hauen aurrean tinko aritzeko; bestela ez etorri besteoi demokrazia leziarik ematera. Estatuari, berriz, eskaera bat: itzul diezaiola Jon bere familia eta herriari.

"Herri honetan oso gutxi sinisten dute espainiar indarren legaltasunean"

"Jon Antzaren argazkia zelan izan leike ilegala?"

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredaktorea Mirari Altube, Goiatz Arana, Arritxu Barroso Oinarrizko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK  
ARRASATE 20500 Otalora Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publiz@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19  
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**  
Langile barik, hutsik dago orain Utlilajes Moldcam enpresa; eta langileak oso kezkatuta daude > 14



> **BERGARA**  
Eguneko zentroa handitu eta egokitzeko lanak asteen hasiko ditu Foru Aldundiak > 16



> **ESKORIATZA**  
Udalak webgune berria estreinatu du, hainbat aldaketa eta berrikuntzekin > 19

ARAMAIO > HIRIGINTZA AZTERKETA

## Madrilgo 60 bat arkitektura ikasle txundituta geratu dira Aramaiorekin

### BISITA

Ibarratik abiatu eta auzoz auzo joan ziren, herria osotasunean ezagutzeko

GOIATZ ARANA > ARAMAIO

Tamaina txikiko bi autobus eta hiruzpalau auto, Aramaioko auzo-etan barrena; eta Asier Agirre alkatea, gidari lanetan. Hori da zapatu arratsaldean, aramaioarrak ikusi ahal izan zuten.

Madrilgo San Pablo CEU unibertsitateko ikasleak ziren bisitariak, Arkitekturako laugarren mailakoak. Hirigintzaren gaineko teoria eta lurzorua legeak ezagutzen dabilta ikasitakoak praktikara eramateko, proiektu bat egin behar dute. Aramaion kokatuko dute, eskolak Arabarriekin –Arabako Diputazioaren sozietate publikoa– duen hitzarmenaren bitartez.

Zapatuan izan ziren Aramaion, giro ezin hobearrekin; egitarau oparoa zeukaten eta osorik bete ahal izan zuten. Ibarra, Barajuena, Etxaguen eta Olaetan egin zituzten geldialdiak. Herri gunearen eta auzoen egiturak, bertako baserrien tipologia eta AHTren lanak ezagutu zituzten; eta udal



Ikasleak Barajuena, Aramaioko Udaleko, Arabarriko eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariekin talde argazkia atera zuten momentuan.

JOSETXO ARANTZABAL

ordezkariek Aramaioko Plan Orokorra aurkeztu eta euren herria baserrietik bizi izan dela kontatu zieten, besteak beste.

**ONDORIOAK GERTU, URTARRILEAN**  
Behin herrian bertan izanda, ikasleek datuak biltzen jarraituko dute datozen asteetan, eta lau hilabete

barru, bueltan etorriko dira, etorkizunerako nolako Aramaio diseinatu duten erakustera Udalari. Egiten dabilzan lana interesga-

rria dela azaldu digu Asier Agirre eta lagungarri izango zailela: "Kanpotik datozenen ikuspegia ezagutzea ondo dator, beti".

### IKASLEEK ARAMAIORI BURUZ KONTATU DIZKIGUTENAK



Hugo Alameda  
Burgos

"Ikusgarria iruditu zait. Herri gune bakar bat dago eta gainerako dena sakabanatuta. Eta auzoen artean dagoen desnibela? Sekulakoa. Burgosko goiko aldeko herriak ekarri dizkit gogora".



Andres Vargas  
Jaen

"Ni hegoaldekoa naizela kontuan izanik, hemengo landaretza oparoak txunditu nau gehien. Oso berdea da eta giro freskoa dago. Ez nuen uste hain deigarria izango zenik. Asko gustatu zait".



Alba Gutierrez  
Madrid

"Polita da eraikitako hain gauza gutxi egotea; etxe gutxi daude eta euren artean oso antzekoak, bertako estilokoak. AHTren lanak direla-eta egiten ari direnak tokiz kanpokoa dirudite paraje hauetan".



Carlos Gonzalez  
Valladolid

"Oraindik ere garai bateko eran bizi den jendea badagoela ikusteak harritu nau gehien. Tradizio hori galduta egongo zela uste nuen, baina ez; Aramaion baserriak bizirik daude".



Marta Perez  
Madrid

"AHTren lanek zirrara eragin didate, talka egiten du gainerako guztiarekin. Baina komunikazioan aurrera egiten lagunduko badigu ondo etorriko da, ezta? Dilema bat dago hor, badakit".

JAIK &gt; OÑATIKO ERROSARIOAK

## Baserritar jantziei mozorroek hartuko diete errelebua gaur

Baserritar jantzi asko, sagardo bikaina, ganadua, barazkiak, sekulako jendetza han eta hemen eta jai giro jatorra; horixe da Oñatiko Herri Eguna

ARRITXU BARRUSO &gt; OÑATI

Aste bukaera luzea eta oparoa izan dute oñatiarrek; zapatuan Herri Eguna eta domekan, berriz, Errosaixo Eguna. Asteburu borobila izan da. Herritarrek, gainera, ez dute hutsik egin eta jaietarako antolatutako ekintza guztiek erantzun bikaina izan dute. Herri egunean, goizean goiz hasi zuten festa; 11:00ak ingururako oñatiarrek fin-fin, baserritar jantzita,

Unibertsitate ingurura gerturazten hasi ziren. Egia esan, bazegoen zer ikusi: ganadu erakusketak, barazki eta fruitu azoka, artisauen postuak, taloak... Unibertsitate ingurua jendez lepo zegoen 12:00etarako.

Herri Egunekoa azoka bakarrik ez, lehiaketa ere bada. Guztira sei lehiaketa egiten dituzte. Gazta lehiaketan, 16 parte-hartzaile egon ziren eta lehenengo



Egubakoitzean bertsolariekin hasi zuten Errosario jaietako aste bukaera. J.A.



Herri bazkariak aurten ere sekulako arrakasta izan du; kiroldegia topetaraino bete zen. J.A.

## Boulevard Udazkeneko Moda Zuzenean BIHOTZERA



**10.000** euro irabazi Boulevard dirutan eta lagundu gaitzazu CARITASEKIN elkar-lanean aritzen.

Saritutako 6€ bakoitzeko €1 erakundeari emango zaiolako. Parte hartu zure erosketa txartelarekin **urriaren 1etik 10era arte**. Nodal Plazako saltokian eta **5 eta 100€ arteko** Boulevard diruko baleak lortu ahal izango dituzu udazkeneko erosketetarako.

Informatu eta parte hartu Caritaseko proiektuetan, behe solairuan gaitutako lokalean.



Konpromisoz beteta. **ZUTAZ** beterik.



www.el-boulevard.com  
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440

saria Azkarreta baserriko Ramon Ugartek irabazi zuen; Ardien lehiaketa, Aldaiko Nestor Alzelaik irabazi zuen; eta bildotsena, Jaumendiko Aritz San Migelekbaita, ahariena ere. Barazki lehiaketan Arendui baserriak lortu zuen lehenengo postua eta fruituenean, berriz, Iruatz baserriak.

Orduak aurrera joan ahala, eta azokan ikusi beharrekoa ikusi eta erosi beharrekoa erosi

ondoren, sagardoa dastatzeko momentua iritsi zen eta herriko plaza betetzen hasi zen; Gipuzkoako 24 sagardogile bildu ziren Foru plazan. Aurten, gainera, izan da aldaketarik sagardo dastaketan. Orain arte bi euroren truke erositako edalontziarekin nahi beste sagardo edateko aukera arduratsu baten aldeko apustua egin nahi izan dute; hori

horrela, aurten bi euroren truke edalontzia eta hamar txartel banatzen zituzten, hamar sagardo dastatu ahal izateko. Ez zen keza handirik izan eta oñatiarrek ondo hartu zuten aldaketa.

Herri Eguneko beste hitzordu garrantzitsua herri bazkaria izan zen. Aurten ere Zubikoa kiroldegia topetaraino bete zen.

Zapatuan oñatiarrek parranda goizean goiz hasi zuten arren, gauean festa gogoarekin jarraitzen zuten. Dantzarako gaua izan zen zapatukoa eta horixe egin zuten oñatiarrek, txosna gunean, Miren, Agur eta Gorka taldearen erromeriarekin eta Impekablesen mexikar doinu ganberroekin; eta herriko plazan, Amaiur taldearen erromeriarekin.

#### ERROSAIXO EGUNA

Zapatukoa egun gogorra izan zen arren, atzo oñatiarrak ez ziren etxean geratu. Errosaixo Eguna zen eta festa giroan jarraitu beharra zegoen. Musikari dagokionean, Oñatiko Musika Bandak girotu zituen atzo eguerdian jaiak eta iluntzean berriz, Varadero taldearen emanaldiak. Unibertsitate inguruan, bestetik, ganadu eta barazkiei auto klasikoek hartu zieten lekua; auto klasikoek erakusketak ere jende dezente batu zuen.

Asteburu luzea izan da baina, festa ez da amaitu, ez da gutxiago ere; gaur mozorroa jantzi eta parrandara irtengo dira berriro ere oñatiarrak.



Talogileak, lanean fin, eta neskatilatxoak, txorizozko taloarekin pozik.

J.A.



24 sagardogile batu ziren plazan.

J.A.



Ganadu dotorea erakutsi zuten baserriarrek Herri Eguneko azokan.

J.A.



Herri Eguna azokatik bueltatxoak emanda hasi zuten denek.

J.A.



Goiz partean ibili zen jende gehien.

JOSETXO ARANTZABAL



Dendariak denboraldi berriko arropak erakutsi zituzten.

J.A.

#### BERGARA > BEDELKARREN AZOKA

## Merkatariak pozik, herritar asko ibili delako azokan

Denboraldiko produktuak erakutsi eta saldu dituzte 17 dendek, Bedelkarren azokan

#### MIRARI ALTUBE > BERGARA

Aurten ere Bedelkar merkatarien elkarteko dendek kalera atera dituzte euren produktuak. Bergarako 17 merkatarik hartu dute parte pilotalekuan jarritako azokan eta denboraldiko produkturik onenak erakutsi eta saldu dituzte, bi egunetan.

#### HERRIA ANIMATU

Beste azoka batzuk ez bezala, denboraldiko produktuak erakustea du helburu Bergaran bigarren aldiz antolatutako azokak, hau da, udazken-neguko produktuak: arropak, bitxiak, landareak, oinetakoak... Erosi gura izan duenari, gainera, merkeago eskaini dizkiote, %10 merkeago.

Herritar asko ibili da azokan, bi egunotan -zapatuan egun guztian eta atzo eguerdira bitartean- eta gustura hartu dute halako ekimena: "Oso txukun jarri dute eta ekarri dituzten produktuak benetan

politak dira. Erosteke gogoa ematen du", azaldu du erosle batek. Gainera, herria animatu egiten dutela halako ekimenek esan du batek baino gehiagok.

#### KANPOTIK ETORRITAKOAK

Azokan postua jarritako merkataria ere pozik daude: "Lan handia da dendatik hona produktuak ekartzea, baina merezi izan du. Gainera, aurten, bi egunetarako antolatuta, gusturago etorri gara", diosku Jolas opari dendako Marije Olabariak.

Bedelkarreko presidente Maria Eugenia Igartza ere pozik azaldu da azokaren jardunarekin. Onartu du iaz baino postu gutxiago egon direla, eta agian, jende gutxitxoago ere bai. "Baina herrikoekin batera, Antzuolatik eta Oñatitik etorritakoak ibili dira eta eskerrak eman gura dizkiegu" esan du. Azokarekin gustura bukatu dute, eta merezi duela halakoak antolatzea ondorioztatu dute merkatariek.



Erabat itxita eta mugimendu barik daude Utillajes Moldcam lantegiaren kanpoko eta barruko aldeak.

LARRAITZ ZEBERIO

KRISIA &gt; UTILLAJES MOLDCAM, LARRI

# Langile barik, hutsik dago orain Utillajes Moldcam lantegia

Langileek susmoa dute likidaziora joko duela; era berean, epaitegietara jo dute, besteak beste, zor dizkietenak kobratu gura dituztelako

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Argi barik, telefono linea barik, lan barik... eta langile barik. Egoera horretantxe daude Utillajes Moldcam enpresan, irailaren bigarren astean langileak etxera bidali zituztenetik. "Enpresak aurkeztu zuen bideragarritasun planarekin ez zegoen inondik inora aurrera egiterik. Seguru aski likidaziora joango da fabrika", Hori da Utillajesko behargin askok uste dutena.

KASUA EPAITEGIETAN DAGO

Hala ere, erabakia epaileen esku dago. Epaitegi zibilaren esku, batetik, Utillajes lege konkurtsean dagoelako (porrot aitortpena); horrek esan gura du epaileak ezarritako administratzaileen esanaren zain daudela.

Hain justu, hark erabaki beharko du porrot aitortpena zilegi den edo ez. "Epaileak erabaki ahal izango du zer gertatuko den; administratzaile konkurtsearen informea, enpresako kontuak eta zer denak ikusi ondoren, epaileak emango dio enpresari edo aurrera jarraitzeko agindua, eta hori uste dut oso zaila dela momentu honetan, edo bestela joango da likidaziora".

Horren harira, langileek salatu dute "epeiz kanpo" sartu zutela lege konkurtseala.

ZORRAK KOBRATU GURAN

Horrez gainera, enpresak beharginekin dituen zorrak kobratzea ere eskatu dute: "Ez dugu txakur txikirik kobratu martxotik gaurko egunera arte", salatu dute; "Iazko abenduko soldatak ere kobratzeke dituzte batzuek", salatu dute langileek.

Horrela, "Eibarko epaitegian egin zen demanda. Epaiketa ere egin da, baina epailearen erresoluzioaren zain gaude. Guk eskatzen dugu Moldcamek ordain diezazkigula zorrak. Dena den, eurak [zuzendaritza] kaudimengabe (insolbente) deklaratu dira; eta ondorioz, kobratu beharrekoa Fogasatik kobratu beharko dugu, seguru asko", salatu dute.

BIDE PENALA ERE ZABALIK

Horrekin batera, bide penaletik ere jo dute langileek. "Bergarako epaitegian dago beste demanda bat, lehengo bazkideak kargu egin daitezten gurekin, langileekin, uste dugulako egin zuten enpresaren salerosketa ez dela bidezkoa".

LANEAN JARRAITU GURAN

Izan ere, zorrak kobratu gura izateaz gainera, langileek hori baino gehiago ere nahiko luke: "Nahiko genuke enpresa horrek jarrai dezala Arrasaten eta guk bertan lanean jarraitzea".

ESPEKULAZIOA EBITATZEKO

Bitartean, behargin talde batek Utillajesek duen ondare bakarra, San Andresko partzela, "edo zein espekulazio edo eraikuntza-entresatoko "pelotazotik" babes-tuta egon dadin", mozioa aurkeztu zuen osokoan, zera eskatzeko: "Industria lurzoru bezala mantentzea edo bestela erabilerara publikora bideratzea; betiere, industria jardueraren etetea ez bada langileekin negoziatu eta itundu".

MOZIOA ONARTUTA

Udalbatzarrak mozioa onartu egin zuen. Alderdi politiko guztiek eman zuten haren aldeko botoa, PSE-EEk izan ezik; talde sozialista abstenitu egin zen; labur esanda, mozioa aurkezteko moduarekin ez zegoelako ados.

Mozioa onartzeaz batera, Ino Galparsoro alkateak adierazi zuen Moldcamen egoera dela "indarrean dagoen eredu ekonomiko bidegabearen ondorioa". Elkartasuna adierazi zien langileei eta gonbidatu zituen "eredu ekonomiko horren aldaketaren alde borrokatzea".

ZUZENDARITZA

Bestalde, Utillajes Moldcam lantegiko zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko ahaleginak behin eta berriro egin ditugun arren, ez da posible izan eurekin komunikatzea; beraz, ez dugu eskuratzerik izan haien ikuspunturik.

GIZARTE ONGIZATEA &gt; EDADETUENDAKO ZERBITZUAK

## Dozena bat lagunek erabiltzen dute Iturbide egoitzako jangela zerbitzua

Jangelara joaten dira autonomo izan arren ondo moldatzen ez diren nagusiak eta tutoretzako etxeetan bizi direnak

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Eguneroko erabiltzaileak ditu dagoeneko Iturbide egoitzako jangela publikoak, opor aurretik haren araudia onartu zutenetik; hain zuzen ere, dozena bat dira, guztira.

"Sei lagun etxetik datoz (euren etxe partikularretatik) eta gainerakoak tutoretzako etxebizitzetan bizi direnak dira", adierazi du Olatz Etxabek, Iturbide egoitzako langileak.

Erabiltzaileen profila ere deskribatu du: "Denak dira gizonak. Etxetik datozenak 70 urte ingurukoak gehienak, baina bada bat 93koa eta beste bat 89koa. Gehienak dira mutilzaharrak, bakarrik bizi direnak, baina jatorduetarako moldatzen ez direnak".

Ikusten den moduan, beraz, jangela zerbitzua badabil funtzionatzen dagoeneko, baina arduradunek azpimarratu gura izan dute lekua ere bada-goela: "Udaletxera jo behar da izena ematera, Gizarte Ongizate Sailera".

Izan ere, esandako moduan, zerbitzu hori da etxean bakarrik bizi direnendako; baina baita ere joan ahal dira Arrasateko tutoretzako etxebizitzetan bizi direnak ere. Azken batean, tutoretzako etxebizitza horiek ere helduendako zerbitzuak dira, 60 urte-tik gorakoendakoak.

TUTORETZAKO ETXEBIZITZAK

Arrasaten halako hiru daude. 2000. urtea ezkerre funtzionatzen dihardute. Eta etxebizitza bakoitzean hiru lagunendako

lekua dago: "Bizilagun bakoitzak dauka gela propioa eta gainerakoak konpartitu egiten dituzte: sukaldea, komuna eta egongela, alegia", aditzera eman du Etxabek.

Etxebizitza horietako bizilagunek eskubidea dute Iturbide egoitzako jangela erabiltzeko. "Arropak ere hemen garbitzen dituzte" eta, horrez gainera, "astelehenetik zaptura gizarte laguntzailea joaten zaie etxetik etxe garbiketara lanak egitera".

ERABILTZAILEEN EZAUGARRIAK

Tutoretzako etxebizitzetan erabiltzaileen ezaugarriak ere azaldu ditu Olatz Etxabek: "Arrasaten erroldatuta egon behar dute; normalean izaten dira etxebizitzarik ez dutenak eta autonomoak direnak. Hileroko kuota dute ezarrita, eta ordaindu ezin duenak laguntza jasotzen du. 680-700 euro da hileroko kuota hori, eta horren barruan dena dago sartuta: etxearen errenta, garbiketara zerbitzua eta jatorduak. Gainera, halako batean dagoenak lehentasuna du Iturbide egoitzara sartzeko".

HOR ERE GIZONAK

Jangelan moduan, tutoretzako etxebizitzetan ere guztiak dira gizonak, 60-70 urtekoak. "Sasoi batean egon zen emakume talde bat. Gaztetan Arrasateetik kanpora bizi izatera joan ondoren, hemen etxebizitzarik ez zutenak. Orain guztiak dira gizonak eta herrikoak", dio Etxabek.

BADAGO LEKUA

Bukatzeke, udal teknikariak aditzera eman du etxebizitza horietan ere badutela lekua, norbaitek beharra izanez gero: "Hiru etxebizitza ditugu; eta bakoitzean hiru lagunendako lekua dago. Bata beteta dago, baina besteetan leku bana dugu".

### oharrak

DIRULAGUNTZAK

&gt; Musika grabazioak egiteko

Udaleko Gazteria Sailak zabaldu du musika taldeendako dirulaguntza deialdia. Grabazio edo edizio gastuak ordaintzeko da laguntza hori.

Eskatu ahal izateko hiru baldintza bete behar dira: 2009an grabatutako lana izatea, aurreko bi urteetan dirulaguntza eskatu ez izana eta taldekideen erdiak arrasatearrak izatea.

Eskaerak aurkezteko azkeneko eguna da azaroaren 27a.

Eta eskura daitekeen kopurua, berriz, grabazio edo edizio gastuen erdia; asko jota, baina, 895 euro.

EMAKUME TXOKOA

&gt; Jabetze Eskola

Emakume Txokoaren Jabetze Eskolan oraindik lekua dago parte hartu gura duenarentako. Komunikazioa eta asertibitate, emakumeendako babes pertsonala, antzerki tailerra eta laborategi esperimental landuko dituzte. Izen emateko: 943 79 41 39.

Mariasun Pagoaga > Doke antzerki taldeko kidea

# "Oso talde zabala da gurea eta ateak zabalik daude edonorendako"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

60 urte betetzear dituela "gazte eta ilusioz beteta" sentitzen da Mariasun Pagoaga. Eta gazte eta ilusioz beteta dago ere, Pagoagak dioenez, Doke antzerki taldea. Pagoaga antzerki taldea sortu zeneetik da bertako kide. Harekin izan gara berbetan.

**Eman diozue hasiera ikasturteari. Zenbatgarrena da dagoeneko? Nola sortu zen taldea?**

Aurten seigarren ikasturtea da. Hasieran, Goikobaluren ospakizun baterako obra bat antzeztea zen asmoa; antzezlan hori bakarrik egin behar genuen. Baina lan haren ondoren aurrera segitzea erabaki genuen eta ordutik hona, urtez urte proiektua indartzen eta finkatzen joan da.

**Zer duzue helburu?**

Doke antzerki taldearen helburu nagusia ondo pasatzea da, hori argi daukagu. Horrez gain, zerbait emankorra egiteko aukera izaten badugu, ondo baino hobeto!

**Gaur egun, zenbat kide zarete?**

Orain arte 15 lagun ginen, baina aurten beste bi kide etorri zaizkigu. Zuzenean etxera deituz jarri dira harremanetan gurekin eta horrek erakutsi digu jendea gauzak egiteko gogoz dagoela. Guk ateak erabat zabalik ditugu edonorendako.

Gainera, denetarikoa jendea dugu taldean: 21 urtetik 62 urte arteko lagunak. Hori bai, guztiok gara gazteak; nik neuk ia 60 urte ditut, baina gazte eta ilusioz beteta sentitzen naiz, taldeko beste kideak moduan. Halako proiektu batek diziplina minimo bat behar du, baina oso talde zabala eta umoretsua gara.

**Eta gehienak aurrez antzerkian esperientzia edo ikasketarik izan gabe...**

Hala da. Taldeko kide izateko ez da antzerkian esperientzia edo ikasketarik izan behar, ezta gutxiago ere. Pentsa, hasieran ez genuen esango hau guztia aurrera irtengo zenik, baina hemen gaude oraindik, eta dagoeneko

sei urte dira. Antzerkiaren oinarriak ikasteaz gain, lotsa albo batera uztea lortu dugu.

**Ikasteko bada, edozertarako gertu zaudete, beraz.**

Zalantza barik. Antzezteaz gain, gure taldean falta diren gauzak osatu gura ditugu: makilajetik hasita agertokia prestatzeraino. Lan horretan ezinbestekoa da gure zuzendari Itziar Rekalderen lana. Rekalde trebea eta oso profesionala da antzerkiaren munduan. Ideia paregabeak izaten ditu, eta gu ideiak osatzen saiatzen gara. finean, harekin ikasi dugu dakigun guztia.

**Noiz eta non elkartzeko zarete?**


Astean bost ordu inguru egiten ditugu. Martitzen eta eguenean biltzen gara Jose Luis Iñarra kalean dugun egoitzan, 18:30etik 21:00etara. Hala ere, antzezlan bat prestatzen bagabiltza, egun bat gehiago egiten dugu astean.

**Baduzue proiekturik hasi berri duzuen ikasturterako?**

Aurten astez aste ikasten joatea da gure asmoa, tailerretan. Datorren urtean Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzi duen eta oso oso polita den obra antzetztea behar dugu, Arrasatek 750 urte beteko dituela-eta.

**"Hasieran ez genuen esango hau aurrera irtengo zenik; sei urte pasa dira dagoeneko"**

**"Ezinbestekoa da Itziar Rekalde zuzendariaren lana, harekin ikasi dugu dakigun guztia"**



Mariasun Pagoaga, Monterron parkeko agertokian.

J.B.

JOKOA > POKERRA

## Arrasate Poker elkarteak egoitzaz aldatzea erabaki du, arazo ekonomikoak direla-eta

Arrogoi taberna zena zuten egoitza moduan, baina alokairua garestitu egin dietela-eta, Uribe auzoan beste lokal bat hartu dute

J.B. > ARRASATE

Pokerra asko zabaldu da Arrasaten. Filmak aurkezten ziguten gutxi batzuek joko ilun hura izugarri zabaldu da gazte arrasatearren artean. Horren adierazle garbia da orain dela urte eta erdi sortu zen Arrasate Poker elkarteak. Izan ere, elkartearen helburu nagusia da, hain justu, "etxea, emaztea eta sos guztiak" galtzen diren joko horren irudia garbitzea.

**LEKUALDATUTA, BAINA AURRERA**

Egoitzaz aldatu badute ere, elkarteak aurrera doala jakinarazi du bertako kide den Juan Carlos Santanak. Hasieran Arrogoi taberna zena zuten egoitza, baina ugazabak alokairua igo dienez, lekuz aldatzea erabaki dute. Orain Uribe auzoan daude, Ostariku dantzalekuaren ondoan. Santanak gogoratu gura izan du irabazi asmorik gabe eta modu legalean antolatuta gura dutela; hau da, pokerra bera sustatzea dela helburua. Pokerra, joko moduan. Oraindik, baina, tramiteetan dabilza Eusko Jaurlaritzarekin.

Elkarteko bazkideei dagokienez, Santanak "gero eta gehiago" direla dio, pokerra hedatzen ari den seinale. Orain dela aste bi, adibidez, txapelketa antolatuta zuten Udala auzoan, eta bertan 53 pertsonak hartu zuten parte.

**ESPAINIAKO POKER TXAPELKETA**

### Arrasatearrak Estatu mailako txapelketan

Urriaren 22tik 25era Espainiako poker txapelketa jokatuko da Donostiako Kursaal kasinon. Arrasate Poker elkarteak Juan Carlos Santanak aurreratu duenez, elkarteak zenbait kidek parte hartuko dute. Hala, orain dela aste bi Udala auzoan jokatutako txapelketa Espainiako txapelketan nork hartuko duen parte erabakitzeko egin zen -euren baimen barik, ez ditu parte-hartzaileen izen-abizenak eman nahi izan-. Santanak hau adierazi du elkarteak kideen parte-hartzearen inguruan: "Txapelketa maila oso handia izango den arren, ziur elkarteak kideren batek lan polita egingo duela".

> GAZTE BULEGOA

### Dantza afroamerikarren ikastaroa egingo dute urriaren 15etik abenduaren 17ra bitartean

Gazte Bulegoak antolatuta, dantza afroamerikarrak ikasteko aukera izango da Kulturaren urriaren 15etik abenduaren 17ra. Irakaslea Magdalena Milano izango da eta eskolak eguenean izango dira, 18:30etik 20:00etara.

Izena eman gura duenak Gazte Bulegora bertara jo, 943 25 20 65 telefonora deitu edo [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net) helbide elektronikora bidaliko beharko du mezua. Matrikularioaren prezioa da 20 euro; langabe eta ikasleendako merkeagoa izango da, 12 euro ordaindu beharko dute.

> ZINEMA

### 'La escafandra y la mariposa' drama interesgarria eguenean Amaia antzokian (20:30)

Eguenean, hilak 9, pelikula interesgarria izango da Amaia antzokian: *La escafandra y la mariposa*. Julian Schnabel zuzendari eta margolari estatubatuarren lan horrek zenbait zinema lehiaketatan hartu du parte eta bi Urrezko Globo eta Oscarretan lau izendapen jaso zituen. Argumentuak egun batetik bestera zeharo paralitiko geratzen den gizon baten istorioa kontatzen du. Protagonistaren irtenbide bakarra bere burua eta irudimena izango dira. 113 minutu irauten du pelikulak.

Bestalde, hurrengo eguenean, hilak 15, Marc Foster zuzendari alemaniarraren *Cometas en el cielo* filma emango dute, leku eta ordu berean.



'Aitonetan' dago eguneko zentroa eta gaur egun duen espazioa handitzea da asmoa.

JOSETXO ARANTZABAL

ZERBITZUAK &gt; EGUNEKO ZENTROA

## Eguneko zentroa egokitze lanak asteon hasiko ditu Aldundiak

Zentroa handitu egingo dute eta 10 erabiltzailerendako lekua izatetik pasako da 25 erabiltzailerendako lekua izatera

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Boni Laskurainen dagoen eguneko zentroa handitu eta egokitze lanak asteon hasiko direla aurreratu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako departamendutik.

Azaldu dutenez, abuztuaren 25ean esleitu zizkioten lanok Goitu enpresari 263.542 eurotan eta Segurtasun Plana ere onartuta dagoela aurreratu dute Aldundiko iturriek.

Nabarmen aldatuko da eguneko zentroa, batik bat, espazioari dagokionez: 10 erabiltzailerendako lekua izatetik 25endako lekua izatera pasatuko da. Hain justu, espazioa irabaztea da lanok egitearen arrazoia, izan ere, eskariak gora egin du eta oraingo egoitzak ez zituen beharrak asetzen.

Lanak bukatuta egongo dira datorren urteko urtarril edo otsailen. Bien bitartean erabiltzaileak Antzuolako eguneko zentrorra

eroango dituzte. Hain justu, badira hilabete batzuk hara eroaten dituztena.

Eguneko zentroaz gain, Boni Laskuraingo eraikinean egoitza du San Joxepe erretiratuen elkarteak. Eguneko zentroa handitzearekin batera, espazioa galdu egingo dute erretiratuek. Hala, Udalak berrantolatu egingo du erretiratuendako eremu hori. Lanok egingo dira eguneko zentrokoekin batera.

IKASTAROA &gt; ARGAZKILARITZA

## Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa eta Photoshop bidezkoa antolatu dituzte

Izenematea da urriaren 15era arte eta plaza kopurua mugatua da; bergararrek lehentasuna dute

PHOTOSHOP BIDEZKOA

Photoshop bidezko argazkilaritza ikastaroari dagokionez, hastapen eta sakontze mailak emango dituzte. Hastapen mailari dagokionez, azaroaren 2an hasi eta 12ra bitartean izango dira eskolak, astelehenetik eguenera, 19:00-21:00 ordutegian (16 ordu), Miguel Altuna institutuan. Izenematea dira 40 euro. 30, berriz, ikasle, erretiratu eta langabetuendako.

Sakontze mailari dagokionez, azaroaren 16tik 26ra bitartean izango da ikastaroa, astelehenetik eguenera, 19:00-21:00 ordutegian (16 ordu) Miguel Altuna institutuan.

Bi ikastarootan izena emanez gero, prezioa izango dira 60 euro; 50 ikasle, erretiratu eta langabeendako.

Plaza kopurua mugatua denez, kopurua baino jende gehiago baldin badago, zozketa egingo dute bi ikastarotan. Izenemate epea da urriaren 15era arte.

M.B. &gt; BERGARA

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa eta Photoshop bidezkoa antolatu ditu Kultura sailak. Oinarrizko argazkilaritza ikastaroari dagokionez, azaroaren 2an hasi eta 25era arte izango da, astelehen, martitzen eta eguztenetan, 19:15-21:15 ordutegian (18 ordu), Pol-Pol argazkilaritza taldearen egoitzan (Zabalotegi 5). 17 lagunendako lekua dago eta bergararrek lehentasuna izango dute. Plaza kopurua baino jende gehiago badago, zozketa egingo dute. Prezioa dira 50 euro. Ikasle, erretiratu eta langabeendako, berriz, 30.

&gt; LEHIAKETA

### Gazte Informazio Guneak 2010eko egutegiaren diseinu lehiaketako oinarriak kaleratu ditu

Bergaran lan, bizi edo ikasten duten 14 eta 35 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta lehiaketa hori. Lanak aurkeztu beharko dira azaroaren 6ko 20:00ak baino lehen, kultura etxean. Testua euskaraz agertu beharko da eta derrigorrez eraman beharko du honako esaldia: *Bergarako Gazte Informazio Gunea*. Bestalde, kartelak, kolore eta teknika librea erabiliz egin daitezke, baina A3 tamainako (42x29,7zm) kartoizko oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira.

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Oinarriak kontsultatzeko jo [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidera.



GOIENKARIA

## Geriatría laguntzaile diploma jaso dute

Geriatría laguntzaile ikastaroa egin duten ikasleek dagoeneko jaso dute diploma. Hain justu ere, aurreko zapatuan jaso zuten, UNEDen.

18 ikaslek bukatu dute 252 orduko ikastaroa eta eskola teorikoez gain, praktikoak ere jaso dituzte. Irudian ikasleetako batzuk agertzen dira irakasleekin batera, diploma eskuan dutela.

Hurrengo geriatría laguntzaile ikastaroa urtarrilean hasiko dela aurreratu dute UNED zentroko arduradunek.





Jon Ubeda, Fran Iturbe, Imanol Ubeda eta Karlos Arantzegi.

GAZTELUPEKO HOTSAK

KULTURA > MUSIKA

# Bide Ertzean Zabalotegin izango da azaroaren 7an lan berriarekin

Urte hasieran Tolosako Leidor aretoan egindako zuzeneko emanaldiaren diskoa, *Leidor Sessions*, aurkeztuko dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bide Ertzean taldeak hamar urte bete ditu eta urtemuga hori ospatzeko, jaialdi berezia egin zuten urtarriean Tolosako Leidor aretoan. Bada, zuzeneko emanaldi haren diskoa eta DVDa, *Leidor Sessions* (Gaztelupeko Hotsak), kaleratu zituzten aurreko astean. Horrekin batera, diskoa aurkezteko egingo dituzten kon-

zertuen berri ere eman dute. Azaroan hasiko dute aurkezpen bira eta hil horretan egingo dituzten hiru kontzertuetatik bat Bergaran izango da.

Azaroaren 7an egingo dute Bergaran emanaldia, 3an Bilboko Kafe Antzokian eta 6an Andoaingo Bastero aretoan jo eta gero. Hemengo izango da Zabalotegi aretoan, 22:30ean; eta

Leidorren diskoa grabatu zuen boskote bera etorriko da: Karlos Arantzegi bateria jotzailea; Joserra Senperena, teklatu-jotzailea; Fran Iturbe, gitarra jotzailea bergararra eta Ubeda anaiak; Jon, baxu-jolea; eta Imanol, gitarra jotzailea eta ahotsa.

HAMAR URTEKO IBILBIDEA

Lan berriaren taldearen hamarkadari errepasoa egiten diote eta ibilbide horretan garrantzia izan duten abestien moldaketak jaso dituzte.

Emanaldian abestutako 22 kantuetatik 15 jaso dituzte dis-

ko-DVDan, hastapenekoak zein kanturik berrienak. Tartean *Graffiti* kantu berria dago.

Hain justu ere, garai bateko kantuak gaur egunean nola definitu izan da, beste gauza askoren artean, kontzerturako hautatu zuten errepertorioa entseatzean lortu behar izan zutena. Hala, taldeko kideek esan dute lan handia egin behar izan zutela kontzertuaren aurretik, "zuzeneko lan hau ez baita izan bira baten barruan grabatu ohi den kontzertu bat: propio prestatu genuen kontzertua, gero grabatzeko".

## oharrak

KINTADA

> **1962an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 31n egingo dute, Tartufo jatetxean. Autobusa egongo da joan-etorriarako. Izenematea egin beharko da urriaren 25a baino lehen, Ariznoa, Etxagi eta Deportivo tabernetan (10 euro aurreratu behar dira). Hitzordua egin dute 20:00etan, Fraisko-zurin.

BERTSOLARITZA

> **Txapa Irratiak Bertsolari Txapelketa Nagusia jarraituko du**

Zuzenean eskainiko du herriko irratiak, Info 7 irratiak ekoiztutako irratsaioarekin bat eginez. Urriaren 3an hasi ziren eta abenduaren 13ra arteko saio guztiak eman- go dituzte.

BERTSOLARITZA

> **Bertsolari Txapelketa Nagusirako txartelak salgai**

Jardun elkarteak daude salgai. Finalerako sarrerez gain, bazkari zein autobuserako txartelak ere badaude.

TXARTEL SALMENTA

> **Pelloren Eguneko bazkari- rako txartelak salgai daude**

Herritar talde batek Pello Garitanoren omenaldi egunerako antolatu duen bazkari- rako txartelak salgai daude. Lazkano zapata-dendan eta Ariznoa tabernan daude salgai, 20 eurotan. Azkeneko eguna da urriaren 12a.

KINTADA

> **1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 24an egingo dute. Izenematea da urriaren 15a baino lehen, Deportivo tabernan. 10 euro aurreratu behar dira.




M.B.

## Seminarioko bi hilobi ireki eta jesuiten gorpuak azaldu dira

Seminarioko elizako indusketak aurrera doaz. Besteak beste, Madariagaren mausoleoaren inguruan dauden hilobietako bi ireki dituzte eta jesuiten gorpuak han daudela frogatu ahal izan dute arkeologoek. Haien hezurdurarekin batera, arropa zein oinetako zatiak ere aurkitu dituzte, irudian ikusten denez.

Zehazten enpresatik gogora ekarri dute interesa duenak, arkeologoak lanean bertatik bertara ikusteko aukera duela. Horrez gain, Turismo Bulegoan bisita gidatua ere eska daitekeela.



GOIENKARIA

## 1.330 gramoko onddoa hartu zuen

Jose Mari Ilardua *Jin*-ek irailaren 30ean aurkitu zuen irudiko onddo ederra. Leku zehatzik esan ez duen arren, Elgeako (Araba) parajeetan aurkitu zuela, behintzat, aitortu zien koadrilakoei. Pozik ekarri zuen onddoa, eta are pozago prestatu lagunekin jateko. Gorla elkarteak egin zuten hori. Sei lagun batu ziren eta plantxan prestatu zuten Ilarduak onddo gozo-gozoa. Koadrilakoak prest ditu beste halako afari baterako.



Galdiano enpresako langileak lurak mugitzen hasi dira dagoeneko.

MIREIA BIKUÑA

LANAK &gt; ZABORTEGIA

## Urrutzuko zabortegia zigilatze lanak abian

Construcciones Galdiano enpresako langileak hasi dira kutsatutako lurra kentzen

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Urrutzuko zabortegia izandako lursaila errekuaratzeko lanak hasi dituzte. Oñatiko Udalak 2009ko abuztuaren 31ko alkate dekretu baten bidez Construc-

ciones Galdianori eman zizkion zabortegia zigilatze lanak. Egunotan hasi dira lanok egiten. Dena den, zabortegia izandako lursaila errekuaratzeko lanak bi zati izango dituzte: lehen zatia

Zañartuko bidearen hegoaldean dagoena da eta han kirolgune berria egingo dute; bigarren zatia bidearen iparraldera dagoena da; hain zuzen ere, industria gune aldera dagoena.

Une honetan lurra mugitzen hasi dira. Lurra kota egokian jarriko dituzte eta lursaila indartu egingo dute. Lanok egiteko lau

hilabeteko epea izango dute. Ondoren, sei hilabetez gelditu egingo dituzte lanak, mugitutako lurra egonkortu egin direla ziurtatzeko.

BIGARREN ZATIA

Bigarren fasean, zigilatze lanak egingo dituzte, lur eremuaren gainean polipropilenoko laminak jarri. Zigilatzearekin bi helburu bete gura dituzte: alde batetik, zabortegi izandako lurra gainean egingo dute kirolgunearekin kontaktuan ez egotea; eta beste alde batetik, goiko urak zabortegira ez sartzea. Lanok 2010. urte bukaerarako amaituko dituzte. Oraingoan, baina ezin dute kirol gune berria egin. Udal aurrekontuetan ez dutela dirurik esan du alkateak.

## oharrak

HITZALDIA

> **Hitzaldia egingo dute Elkar Hezi ikastetxean eguenean**

*Nola lagundu seme-alabei ikasketetan* delako hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak eguenean, 18:30ean; hain zuzen ere, Elkar Heziko Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian. 6 eta 14 urteko arteko seme-alabak dituzten gurasoendako hitzaldia da.

Bestalde, heriotzaren gaineko hitzaldia egingo dute Elkar Hezin hilaren 15ean.

ERAKUSKETA

> **Ageriko pintura lehiaketa lanak ikusgai kultura etxean**

Ageriko pintura lehiaketako lan onenak eta irabazleak eta pintura ikastaroetan jardun duten ikasleek egindako lanak ikusgai daude kultura etxean urriaren 12ra arte. Hain zuzen ere, asteleheneetik domekara arte, 18:00etatik 20:00etara.

DEIALDIA

> **1967an jaiotakoek kinto afaria egingo dute urrian**

Aretxabaletako Baster-Alde jatetxean egingo dute afaria urriaren 24an. Interesatuak izena eman dezakete zapatua baino lehen. 20 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035000-5350051035631 zenbakidun kontu korrontean. 20:00etan elkartuko dira Txurruka tabernan eta 20:30ean autobusa hartuko dute afaltzera joateko.

ZINEMA &gt; ZINEKLUBKO DENBORALDI BERRIA

## 'El luchador' filma, zineklub denboraldia hasteko

Eguenean, hilaren 8an, hasiko dituzte emanaldiak kultura etxeko zinema-aretoan; apirilera arte 30 film eskainiko dituzte

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Zineklub taldekoek denboraldi berria hasiko dute eguenean, urriaren 8an. Hain zuzen ere, Darren Aronofskyk zuzendutako *El luchador* pelikula eskainiko dute. Marisa Tomei, Eva Rachel Wood eta Mickey Rourke dira protagonista nagusiak. Azken

horrek Oscar sarietarako izendapena jaso zuen aktore onenaren atalean.

APIRILERA ARTE, 30 PELIKULA

Zineklubeko emanaldiak kultura etxeko zinema-aretoan egingo dituzte eguenero, 20:00etan. Dagoeneko zehaztu dituzte Gabonak arteko pelikula (ikus ondoko taula). "Apirileko azken eguenera arte jaiegun ez diren eguen guztietan zineklub emanaldiak egingo ditugu. Ostera, jaiegun direnetan, zinema komertzialeko pelikula eskainiko dute", esan digu zineklub taldeko kide Anton Azpiazu.

Batez beste, 70 bat lagun joaten da eguenero emanaldiak ikustera. "Hiriburuetako zinema-aretoetan zenbat ikusle dabilen ikusita, ikusle fidelak ditugula esango nuke. Azken urteotan ikusle berberak ditugu; baina, azkenaldian seme-alabak hazita dituzten bikote geroz eta gehiago joaten da emanaldietara", esan digu Azpiazu.

GONBITA GUZTIEI

Zineklub taldekoek behar dituzten pelikula zinema komertzialeko ardura duen Kruz Mari Ansoaldi eskatzen dizkiote. "Izugarrizko laguntza ematen digu Kruz Mari. Guk eskatzen dizkiogun

film gehienak ekartzen dizkigu. Eskerrak eman beharrean gaudel!", dio Azpiazu.

Bestalde, zineklubeko emanaldietara joaten ez direnei gonbita egiten diete: "Gustuko duten pelikula ikustera etor daitezela".

Mickey Rourke *El luchador* pelikulan.

GOIENKARIA

### Gabonak arteko pelikula

URRIA	PELIKULA	ZUZENDARIA
Urriaren 8an	<i>El luchador</i>	Darren Aronofsky
Urriaren 15ean	<i>Las horas del verano</i>	Olivier Assayas
Urriaren 22an	<i>The Visitor</i> (J.B.A.)	Thomas McCarthy
Urriaren 29an	<i>Appaloosa</i>	Ed Harris

AZAROA	PELIKULA	ZUZENDARIA
Azaroaren 5ean	<i>La noche es nuestra</i>	James Gray
Azaroaren 12an	<i>Vals con Bashir</i>	Ari Folman
Azaroaren 19an	<i>Los Limoneros</i>	Eran Riklis
Azaroaren 26an	<i>La caja de Pandora</i>	Yesim Ustaoglu

ABENDUA	PELIKULA	ZUZENDARIA
Abenduaren 3an	<i>El bosque de luto</i> (J.B.A.)	Naomi Kawase
Abenduaren 10ean	<i>Dejame entrar</i>	Tomas Alfredson
Abenduaren 17an	<i>Cuento de Navidad</i> (J.B.A.)	Arnaud Desplechin

ESKORIATZA > UDALA

## Eskoriatzako Udalak webgune berria estreinatu zuen joan den astean

Oraindik osatzeko prozesuan dago; eta, hortaz, Udalak iradokizunak edo webgunea hobetzeko proposamenak egiteko dei egin die herritarrei

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak webgune berria du joan den eguna ezkerro. Dena den, webgunea aireratu badute ere, oraindik informazio eta eduki berriak falta dira eta hamabost bat egun beharko dituzte zerbitzu guztiak txukun eskaini ahal izateko.

Horretarako, baina, herritarren laguntza ezinbestekoa dela jakinarazi dute Eskoriatzako Udaletik. Hortaz, horren gainean iradokizunik eta webgunea hobetzeko proposamenik duten eskoriatzarrei *kultura@eskoriatza.net* helbidera idazteko gonbidapena egin gura izan diete.

PANTAILA ZABALAGOA

Dagoeneko sei urte pasa dira Eskoriatzako Udalak webgunea martxan jarri zuenetik. Hain justu ere, 2003ko otsailaren 21ean kaleratu zuten lehen webgunea eta hark orain arte irau-

du. Interneten, dena den, urte gutxian berrikuntza handiak izan direla-eta, ondorioz, webgune hura zahar geratu dela azaldu dute Udaleko iturriek. Berrikuntzen artean, nabarmendu dute oraingo pantaila zabalagoa dela, gaur egungo ordenagailuen pantailaetara egokituz.

Helburuak hasierako bera izaten diharduela gaineratu dute: Internet bidez, eskoriatzarrei udal zerbitzuak eta herri informazioa helaraztea. Hori kontuan hartuta, honako zerbitzuok jasotzen ditu webguneak: udalerriaren gaineko informazioa; web bidezko zerbitzuak eta tramiteak; erakundeak prestatutako zerbitzu publikoen, arauen eta ordenantza erregulatuzaileen informazioa, eta horrekin zerikusia duten bestelako informazioa; erakundearen antolakuntza, organo, funtzionamendu, akta, bulego, argitalpen, ordutegiaren gaineko zerbitzu



Lehenengo webgunearen irudia.

GOIENKARIA



Eguraldiaren iragarpena ere badago webgune berrian.

GOIENKARIA

publikoko informazioa; eta herritarrendako interesgarria den bestelako udal informazioa.

EGURALDIA ETA KEXAK

Horren harira, abian jarritako webguneak hainbat zerbitzu berri eskaintzen ditu. Esaterako, goian, eskuinaldean, hiru egune-

rako eguraldiaren iragarpena ikusten da pantailan. Ezkerraldean, berriz, herritarren iradokizunak edo kexak jasotzeko atala dago. Beheko partean, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundirako eta Suradesarako loturak aurki daitezke; baita ordainketak egiteko atala ere.

ARETXABALETA > KULTURA

## Ikus-entzunezkoa, erakusketa eta antzerkia asteen Arkupen

Sahararen gaineko ikus-entzunezkoa dago egunean, 19:30ean, Zaraia aretoan

M.B. > ARETXABALETA

Aretxabaleto Kultur Sailak urrirako gertatu duen egitarauaren harira, egunean, hilak 8, Sahararen gaineko ikus-entzunezkoa ikusi ahalko dute, 19:30ean, Zaraia aretoan joaten direnek. Horretarako sarrera librekoa izango da.

Zapatu gauean, berriz, helduendako antzerkia egongo da. Hain zuzen ere, Txalo konpainiaren *Ni Hektor naiz* antzezlanak ikusteko aukera egongo da. Betiko moduan, 22:00etan emango diote hasiera ikuskizunari Zaraia aretoan eta prezioa zortzi euro izango da.

Bestalde, domeka arratsaldean ere umeak batuko dira toki

berean. Izan ere, 17:00etan, Trikuharri taldeak *Galtzagorrieto, Inaxito!* haur ikuskizuna eskainiko du han.

Mitologia oinarri duen ikuskizuna da eta Inaxito, Margarita, agurea eta galtzagorriak dira protagonista. Hain zuzen ere, pertsonaia mitologikoak ezagutuko dituzte hurrek: basajauna, Anbotoko andrea, lamiak eta galtzagorriak, besteak beste. Trikuharri taldeko antzezle diren Ibai Esoain, Xabier Sukia eta Gorka Tolosaren eskutik, bereziki 5 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago emanaldi hori. Eta sarrerak hiru euro kostatzen dira.

ERAKUSKETA

Horretaz aparte, eta ohikoa den moduan, erakusketa ere badago Arkupe kultura etxean. Hilaren 31ra arte, *Pertsonaien erakusketa: Madarikatuak eta apartekoak* izenekoak egongo da hantxe ikusgai.

EUSKARA

## Dagoeneko lanean hasi dira Leintz euskaltegian

Eguenean bost talde hasi ziren eta bihar, martitzena, beste bi hasiko dira

M.B. > ARETXABALETA-ESKORIATZA

Leintz Udal Euskaltegian ikasturte berriari hasiera eman diote dagoeneko Eskoriatzan eta Aretxabaletan. Hango zuzendari Karmele Agirregabiriak adierazi digu joan den egunean, urriak 1, bost talde hasi zirela eta bihar, martitzena, beste bi taldek ekingo diotela. Horrekin batera, azaldu du talde guztiak astelehenetik egubakoitzera bitartean izango dituztela euskara ikasteko eskolak eta auto-ikaskuntzan 17 ikasle izango dituztela aurretan.

Agirregabiriak nabarmendu digu zazpi talde horietatik bi EGAKoak direla: "Guztira, 27 ikasle ditugu EGA lortzeko prestatzen hasi direnak. Izugarri hazi da goi mailako titulazioa lortu gura duten ikasleen kopurua. Krisia dela-eta, jende asko langabezian dago, eta, denbora duenez, titulazioak lortzea du helburu".

Taldeak osatuta badaude ere, oraindik ere izena eman daitekeela aipatu du Agirregabiriak. Interesatuak 943 79 21 68 telefono zenbakira deitu edo e-posta honetara idatz dezakete: *leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Bestalde, Leintz Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu aurretan, eta, etengabeko berritze prozesuan egonik, Agirregabiriak aurreratu du hasi berri den ikasturte honetan *Twitter* eta *Facebook*-az baliatuko direla ikasleekin harremanetan jartzeko, berrikuntza teknologikoak erabilita.



GOIENKARIA

## Onddo ederrak Eskoriatza aldean

Onddo mordoxka hartu zituen Jose Antonio Elexpuru aretxabaletarrek eguzten goizean, Eskoriatza aldean. Euri gutxi egin duela eta onddo askorik ez dagoela diote batzuek, baina toki egokian badagoen seinale; gainera, ez edozelakoak, benetan handiak ere topatu zituen Elexpuru. Onddo handienak kilo pasaz zeukan.

## IRIARTE

Umeen denda  
Helduen lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA



Gatzagako umeak liburutegian lanean iazko ikasturtean.

GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA &gt; AISIALDIA

## Gaur zabalduko dituzte ludoteka eta liburutegia

Astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik bi orduz (17:00-19:00); ludotekan bertan eman behar dute izena interesa duten umeek

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

Gaur, urriak 5, zabalduko dituzte Garro jauregian dauden ludoteka eta liburutegiaren ateak. Hala, ikasturtea hasiko du Gurel guraso elkarteak. Orain arte legez, astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik bi orduz (17:00-19:00).

Lehen astean erabiltzaileen zerrenda osatuko dute Gureleko kideek, ludotekako jarduna behar bezala antolatzeko. Hala, aste guztian izango dute izena emateko aukera Gatzagako umeek eta gaztetxoek; ludotekan bertan topatuko dute Gureleko ordezkariaren bat. Ikasturteko kuota 35 eurokoa da.

BERRIKUNTZEN BALORAZIOA

Bi eta 12 urte arteko ume eta gaztetxoendako zabalduko dituzte, baina txikienek gurasoekin egon beharko dute. Ludotekan jolas egiteko gunea daukate herriko umeek, eta liburutegiak, ostera, eskolako lantxoak egin, irakurri eta marrazkiak eta eskulanak egiteko aukera eskaintzen diete.

Begirale bat izango dute umeek ludotekan zein liburutegian dauden bitartean. Gurelek begirale lan hori betetzeko deia egin zuen orain dela hamar egun eta zelan antolatu adosten jardun du azken egunotan. Iaz hainbat berrikuntza egin zituzten zerbitzuak hobeto funtziona zezan eta

berrikuntza horien balorazioa egindakoan erabakiko dute bide horretatik jarraitu edo ez.

BATZARRA URTARRILEAN

Orain arte azaroan egin izan du batzar orokorra Gurelek batzordea berritzeko, baina aurten hasita urtarrilean egingo dute. Izan ere, kide berriak sartu eta berehala Gabonetako ekitaldiak antolatzen hastea gehiegitxo dela uste dute eta Gabonak pasatutakoan aldatzea erabaki zuten azken batzarrean. Bi urterako hautatzen dituzte batzordekideak eta dagoeneko bi urte beteko dituzte presidente den Nerea Marurik eta idazkari Aitziber Gorosabelek.

ANTZUOLA &gt; SENIDETZEA

## Antzuola eta Aiherraren arteko senidetzearen uteurreneko kamisetak salgai ipiniko dituzte

Umeendako kamisetek zortzi euro balio dute eta helduendakoek 10; egubakoitzean eta domekan Kalebarrenen ipiniko dituzte salgai

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Antzuola eta Aierra herrien arteko senidetzeak 25 urte beteko ditu aurten, eta data berezi horren harira, jendeak gerora ere gogoan izan dezan, kamisetak gertatu dituzte eta salgai izango dira.

HIRU KOLORE

Umeendako kamisetak (2, 3, 4-5, 6-8, 10-12 neurriak) zortzi euro balio dute eta helduendakoek (S, M, L, XL eta XXL) 10 euro. Neurrietan eta koloreetan ere bada ezberdintasunik; hiru koloretakoak egongo dira: neurri txikiak kamiseta laranja izango dira eta handietan granatea eta beltza ipiniko dituzte aukeran.

Kamisetak Zurrategi plazan egubakoitzean ipiniko duten mahai batean salduko dituzte, eta domekan, senidetzearen ekitaldi nagusian ere egongo da kamisetak erosteko aukerarik, herriko plazan. Bestalde, Antzuola-Aiherra senidetzearen

urteurreneko ekitaldi guztietan ipiniko dituzte salgai, baita udaltxean ere agortu bitartean. Guztira 400 kamiseta egin dituzte eta asmoa da Aiherrara eramatea.

BAZKARI TXARTELAK

Egubakoitzean eta domekan egongo dira kamisetak salgai, baina domekan, 14:30ean, pilotalekuan izango den bazkarirako txartelak aurrez erosi beharko dira. Erosteko azken eguna urriaren 7a, eguaztena da. Txartelak salgai daude herriko tabernetan, gaztetxean, liburutegian eta udaltxean. Umeendako txartelak sei eurotan erosi daitezke eta helduendakoak 12 eurotan.

ARAMAIO &gt; KULTURA

## XVIII. kaleko margo lehiaketa egingo dute urriaren 12an

Parte-hartzaileei bazkaria emango zaie 14:30ak inguruan. Epaimahaiak 18:30an jakinaraziko du irabazleen izena

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Aramaioiko Itur Zuri emakume elkarteak antolatuta datorren astelehenean, urriak 12, egingo da kaleko margo lehiaketa; aurtengoa hamazortzigarren edizioa izango da. Edozeinek hartu dezake parte, teknika librea izango da eta margoen gaia Aramaio eta bere inguruekin lotutakoa izan behar da.

Antolatzaileek 09:00ak eta 11:00ak bitartean sinatuko dituzte mihise edo lientzoak. Parte-hartzaileei bazkaria

emango zaie 14:30ak inguruan eta epaimahaiak 18:30ean jakinaraziko du irabazleen izena. Horretarako sari banaketa ekitaldia egingo dute. Guztira zazpi sari banatuko dituzte; horietako bat herriko parte-hartzaileen artean banatuko da. Parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra irabazi ahaliko du.

Lehiaketako margolanekin erakusketa bat egingo da urriaren 12tik 22ra eta margolariak urriaren 17an hasi ahaliko dira lanak jasotzen.



Aramaioiko kaleak margolariz beteko dira datorren astelehenean.

GOIENKARIA

ELGETA &gt; AISIALDIA

## Umeak behar dira zaintza zerbitzua martxan jartzeko

Psikomotrizitate saioetan ere ume gehiagok aberastu egingo lukete jarduera

LARRAITZ ZEBERIO &gt; ELGETA

Zaintza zerbitzua zabaltzeko ahaleginetan jarraitzen du guraso elkarteak. Aurreko ikasturte amaieran kontsulta egin zuten zenbat ume erabiliko luketen zerbitzu hori. Bost ume eman zuten orduan izena, eta gutxi dira zerbitzuak duen kostuari aurre egiteko. Deialdia atzera ere zabaltzeko erabakia hartu zuen guraso elkarteak aurreko astean egindako ikasturte hasierako batzar orokorrean. Hasiara batean zaintza zerbitzua 07:30etik 09:00etara zabaltzea da asmoa. Bigarren deialdi honek duen arrakastaren arabera erabakiko dute zerbitzua abian jartzea posible den edo ez.

PSIKOMOTRIZITATEA

Itsaso Leaniz psikomotrizitate irakaslea eguaztenean batu zen ikasturterako izena eman duten umeen gurasoekin. Bost ume daude izena emanda; hiru, 2-4 urte bitartekoak, eta bi, 5 urtekoak. Irakasleak azaldu zuen bere ustez bi eta bost urteko umeen arteko salto handia dela denak psikomotrizitate saio bakar batean sartzeko. Hala, ume gehiagok izena ematea interesgarria izango litzaitekeela adierazi zuen.

Saioak, baina, hasi egingo dituzte. Gaur, astelehena, egingo dute lehen. Aurten psikomotrizitate eskolak, 16:30etik 18:00etara egingo dituzte. Iaz bezala, Herri Eskolako koltxoneta gelan izango dira.

Bost umeak batera hartuko ditu Leanizek lehenengo saioetan, eta eguneroko dinamika zer ematen duen ikusita erabakiko du zer egin. Interesaturik balego udaletxera jo behar dute. Prezioa, hilean 20 euro da.

# Kirola



## > FUTBOLA

Partidu eskasa jokatu arren, Mondrak garaitu zuen Beti Gazte > 22



## > MENDIKO BIZIKLETA

Ziklista gehienak oso gustura, Debagoieneko zirkuituarekin > 26



## > GORKA KINTANA

Arrasatearrak saskibaloiko EBA ligako Iraurgi taldean jokatuko du > 27

SASKIBALOIA > DENBORALDI HASIERA

# Lehen partidua irabazita gogotsu hasi du denboraldia MUK (81-76)

## IRABAZI

Partidu parekatua jokatu arren, garaipena lortu zuen MUK

## GALDU

Aloña Mendik eta Bergarak galdu egin zuten nor bere mailan

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Aste bukaeran hasi dute denboraldia ibarreko saskibaloiko taldeek. Lehen mailan jokatzen duen MUK partidua gogorra zeukan Mikeldiren aurka, baina gailentzea lortu zuen (81-76).

## PARTIDU PAREKATUA

Oso urduri hasi zuten partidua bi taldeek eta arrasatearrak ezin asmatu ibili ziren lehen laurdenetan, joko garbirik egin barik (20-24). Hurrengo bi laurdenetan, ostera, alde batera utzi zituzten taktikak eta estrategiak eta bihoztez jokatu zuten gehiago, hala edo hola saskiratu beharrean (43-44). Azken laurdena aurretik zedula hasi zuten eta horrek baldintzatu egin zuen jokoa. Hala ere, zortzi minututan 5-0 partziala egin zuen Mikeldik eta partidua berdindu. Arrasatearrek, baina, lasaitzea lortu zuten azken minu-

tuetan eta jokoaren kontrola hartu zuten, baloia guztiz dominatuz (8-0 partziala). Bien bitartean, Mikeldiko jokalariek noraezean zebiltzan eta ez zuten asmatu saskiratzeetan.

Arrasatearrak oso pozik zeuden partidu bukaeran parekatuta ibiliko den Mikeldiri irabaztea garrantzitsua zelako. Hurrengo partidua Urretxun jokatuko dute Goierriren aurka eta hori ere irabazi beharrekoa da.

## ALOÑAK ETA BERGARAK GALDU

Aloña Mendik ere aste bukaeran hasi du denboraldia senior autonomiko mailan. Santurtzin jokatutuzten oñatiarrek eta ahazteko moduko partidua izan zen. Galdu egin zuten, tarte handiarekin gainera, 105-73. Xabier Igarturen esanetan, jai askotxo izan dira egunotan eta igarri egin dute hori jokalariek. Denboraldiko partidurik txarrena izan zela pentsatu gura dute eta aurrera egin. Zapatuan etxean jokatuko dute (18:00) Askartzaren aurka, mailako faboritoetako bat.

Gipuzkoako senior mailan jokatzen duen Bergarak ere galdu egin zuen atzo, Leihoak Zarautz taldearen aurka (69-56). Lehen laurdenetan motel ateratu ziren eta galtzen hasi, baina hurrengo bi laurdenetan egindako defentsan lan onari irabazten jarri ziren (48-49). Azken laurdenetan, ostera, nekearen erruz ezin izan zituzten eutsi emaitzari.



MU taldeko jokalaria baloia saskiratu guran.

JOSETXO ARANTZABAL

Javi Zurbano > MU taldeko entrenatzailea

## "Gogor borrokatuta irabazi beharko ditugu partidua"

M.A. > ARRASATE

Talde gaztearekin hasi du denboraldiari MUK, Javi Zurbanoren esanetara. Lehen partidua jokatu ostean, pozik dago entrenatzailea.

Zelan hasi duzue denboraldia?

Asko sufrituta. Lehenengo jokalariek garrantzitsuek alde egin zutelako

ko taldetik eta gero arazoak izan ditugulako kiroldegian; azken asteotan hiru entrenamendu saio bakarrik egin ahal izan ditugu, eta aurre-denboraldiko partidua bertan behera utzi.

Hala ere ilusio handiarekin antzematen zaizue; zein da helburua?

Luzera begirako helbururik ez



GOIENKARIA

dugu, partiduz partidu irabazten joatea, ez dago besterik. Taldea oso gaztea da eta oraindik garatu egin behar da eta gero hazi. Gure helburua lehen taldean sartzea izango litzateke, hau da, igoera fasean daudenen artean geratzea; hala, ez genuke sufrituko iaz legez.

Lehen partidua tentsio handikoa izan da eta gazteak izan arren, gogor borrokatu dute jokalariek.

Bai, hala da eta partidua hala ere irabazi beharko ditugu, gogor borrokatuta. Jokalariek badakite hori eta bat eginda gaude.

Eta erreakzionatzeko gaitasun handia erakutsi dute azken minutuetan buelta emanaz partiduari.

Bai horixe. Harrituta geratu naiz une erabakigarrian erabat lasaitu eta partiduaren kontrola hartzen ikusi ditudanean.

Lehenengo garaipen hori garrantzitsua izan da, ezta?

Oso garrantzitsua. Mikeldi eta Goierri, hurrengo partiduko aurkaria, gure antzera ibiliko dira eta lehen taldean egon gura badugu, eta ez behere jaitziko diren artean, derrigorrez irabazi behar diegu horiei.

FUTBOLA &gt; HIRUGARREN MAILA

# Gogor borrokatuta, hiru puntuak etxera ekarri zituen UDAk

Lehen zatian aretxabaletarrak izan ziren nagusi, baina ez zen golik egon

Bigarren zatia indartsu hasi zuten Getxokoek, baina 69. minutuan Oinatzen gola iritsi zen

ARENAS GETXO

0-1

ARETXABALETA

**Arenas** > Txemi, Fernandez, Mollinedo, Ibai, Zabala, Manu, Koldo (Zabala, 46. min.), Paez (Endika, 75. min.), Marti, Jauregi (Lander, 23. min.), eta Guerrero.

**Aretxabaleta** > Eden, Raul, Akaitz, Amuxastegi, Astola, Haritz Igartua, Orueta (Iñaki, 79. min.), Ruben, Unai (Oinatzen, 66. min.), Borja eta Imanol.

**Epailea** > Boyero, Oribe eta Lavado marrazainek lagunduta. Sei txartel hori ateratu zituen: lau, Aretxabaletakoei (Orueta, Ruben, Eden eta Iñaki).

MIRARI ALTUBE &gt; BERGARA

Getxon jokatu zuten partidua aretxabaletarrek zapatuan, eta hiru puntuakin itzuli ziren bertatik. Gordobilen mutilek lan polita egin zuten eta nekatu barik borrokatu, puntuak eskuratzeko.

UDAKoek bazekiten partidua gogorra izango zela Gobela futbol zelaian, tartean orain arte gol gehien sartu dituen jokalaria dutelako –Marti, sei golekin–. Hori horrela, lehenengo zatian gogotsu atera ziren eta aretxabaletarrak izan ziren nagusi zelaian, Arenas taldekoak noraezean zebiltzan bitartean. Imanolek aukera ere izan zuen, baina ezin gauzatu.

Bigarren zatian indartsuago ekin zioten etxekoek eta hainbat gol aukera izan zituzten: 52. minutuan, Landerrek eta 62. ean, Martik. Etxekoak gola usaintzen hasita zeudenean, aretxabaletarrena iritsi zen, 69. minutuan, hain zuzen. Jokaldi polita hasi zuen Oruetak, gero Raulek erdiratu, Borjak ukitu eta zelaian hiru minutu zeramatzan Oinatzen bidali zuen sareetara. Handik aurrera emaitzari eustea zen helburua eta halaxe egin zuten, gogotsu borrokatuz eskarmentu handia duten getxotarren aurka. Bigarren gola sartzeko aukera ere izan zuten Gordobilen mutilek, azken minutuan. Aipatu behar, Eden atezainak jokatu zuela Gaizkaren ordezkari –ondoezik–, eta benetan lan polita egin zuela.

EGINDAKO LANAREN EMAITZA

Igor Arenaza bigarren entrenatzaileak jokalariek egindako lana goraiatu gura izan zuen, partidua bukaeran: "Esfortzu handia egin dute, lan polita, eta ondorioz gura genuen emaitza lortu dugu". Benetan ederto dabilza UDAKoak hirugarren mailan, zazpigarren jardunaldia jokatu ostean partidua bakarrik galdu dutelako

ESANAK

"Esfortzu handia egin dute jokalariek, lan benetan polita, ondorioz, gura genuen emaitza lortu dugu"

I. Arenaza &gt; Bigarren entrenatzailea

–Real Sociedad B-ren aurka–. "Hirugarren mailan gogor borrokatu behar da, baloia asko ibiltzen da goitik eta jardunaldiz jardunaldi egin behar dugu aurrera". Getxokoek bazekiten indar handia duen taldea dela UDA baina ezusteko galanta eman zuten puntuak kenduz.

DOMEKAN, SANTURTZI

Zazpi jardunaldi jokatu ostean 11 puntu ditu UDAK. Domekan, Santurtzi hartuko du, Ibarra futbol zelaian. "Etxean irabazi gura dugu orain, zaleen aurrean", esan zuen Arenazak. Ez da partidua samurra izango, Santurtzik ez du egin denboraldi hasiera ona eta puntuak eskuratu gurako ditu.

OHOREZKO ERREGIONALA &gt; MONDRA-BETI GAZTE

# Partidu ona ez, baina hiru puntuak etxean geratuta pozik

Lehen 20 minutuetan partidua polita jokatu zuten eta orduantxe iritsi ziren bi golak; gero, behera egin zuten eta bigarren zatia eskasa izan zen

MONDRA

2-1

BETI GAZTE

**Mondra** > Mikel, Julen Losada, Unai Mutilba, Enrique Tena (Bereziartua, 56. min.), Andres Castillejo, Iker Laspiur, Ekain Garin (Oier Arregi, 77. min.), Iker Lopez, Jon Muruamendiaraz (Illart, 87. min.), Ion Zabaleta eta Julen Eriz (Pavon, 75. min.).

**Beti Gazte** > Joseba Telletxea, Mikel Irigoien, Roberto Villadongas, Lander Arriola, Beñat Iratzoki, Xabier Maritxalar (Ion Larralde, 45. min.), Martin Gonzalez (Aser, 61. min.), Oier Iantzi, Beñat Sarriegi (Beñat Maya), Ibai eta Ander Maya (Xabier Maritxalar, 34. min.).

**Epailea** > Eneko Loran, Kevin Vazquez eta Christian Perez marrazainekin. Lau txartel hori.

Gogotsu atera ziren Mondra jokalariek zelaira eta, lehen 20 minutuetan, partidua polita egin zuten. Golak ere orduantxe iritsi ziren, lehena Julen Erizek egin zuen, 11. minutuan, ezker aldetik indartsu jaurtita. Handik lau minutura, Jon Muruamendiarazi egindako falta ikusi zuen epaileak area barruan eta penaltia adierazi zuen. Muruamendiarazek berak jaurti eta gola sartu zuen.

Lehen zatia bukatu bitartean, beste aukera batzuk ere izan zituzten arrasatearrek, baina poliki-poliki lasaitzen joan ziren. Hala, bukatzeko lau minutu gertatzen zirenean, Beti Gazteren gola etorri zen. Erasoan irten ziren Lesakako jokalariek eta, arrasatearrek despistatuta zeudela, gola sartu zuen Oier Iantzik.

BIGARREN ZATI ESKASA

Bigarren zatia hasi orduko aukera bikaina galdu zuen Mondrak, hutsegite handia egin zutelako Beti Gaztekoek ate aurrean. Hala



Keixi, baloia eskuratzeko borrokan.

JOSETXO ARANTZABAL

ere, ezin golik sartu, eta halaxe jardun zuten partidua bukatu bitartean, ezinean. Kosta egin zitzaion baloia behar bezala bideratzea eta, izandako aukera bakarretan, ez zuten batere ondo asmatzen ate aurrean. 68. minutuan, penaltia adierazi zuen Mondraren aurka, baloia besoarekin ukitzen ikusi zuelako epaileak. Mikel atezainak, baina, aldena egin zuen baloia eskuarekin eta ez zen golik izan. Partidu polita

jokatu zuen Mikelek. Handik aurrera, emaitzari eusten ahalegindu ziren Mondraok.

Laugarren jardunaldian lortu du Mondrak lehen garaipena; horregatik, zaleak pozik zeuden. Hala ere, Andoni Azkargorta entrenatzailea ez zegoen batere gustura partidua bukaeran, eta lehenengo 20 minutuetan egindako jokoa topatu behar dutela adierazi zuen, "aurrera egin ahal izateko".

HURRENGOAN, OIARTZUN

Datorren aste bukaeran ere Mojategin jokatu du ohorezko erreional mailako Mondrak; oraingoan, Oiartzun taldea izango du aurrez aurre. Etxeko partidua irabaztea ezinbestekoa du puntuak batu eta aurrera egiteko –4 puntu ditu, Bergarak eta Aloñak bezala–. Baina puntuak jasotzeaz gain, joko hobea erakutsi gura dute zaleen aurrean Azkargortaren mutilek.

M.A. &gt; ARRASATE

Denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Mondrak, atzo, Mojategin (2-1). Partidu onik ez zuten egin arrasatearrek, hortaz, hiru puntuak etxean geratuta, pozik.

**OHOREZKO ERREGIONALA > VASCONIA-ALOÑA MENDI**

# Vasconiari 0-2 irabazita, konfiantza eskuratu du Aloñak

Lehen zatian ezin asmatu ibili arren, lehenengo golak lasaitasuna eman zien eta, ondorioz, gora egin zuten oñatiarrek

**M.A. > BERGARA**

Donostiako Herrera auzora joan ziren zapatu arratsaldean oñatiarrek, Vasconia taldearen aurka jokatzera. Irabazi beharra zeukaten, joan zen asteko porrota ahaztu eta indarrak eskuratzeko, eta halaxe egin zuten; 0-2 gailendu ziren.

**GOLAK, BIGARREN ZATIAN**

Lehenengo zatian oso parekatuta ibili ziren bi taldeak, eta oñatiarrek urduri, golik ez zelako iristen: "Antzera ibili gara, baina geu eskasago; ezin asmatu zelaian", adierazi zuen Josu Zubia entrenatzaileak.

Golak bigarren zatian iritsi ziren, Roberren eskutik. Lehen golak lasaitasuna eman zien oñatiarrei: "Baloia lasaiago menderatu dugu golaren ostean eta gora egin dugu orduan. Horixe zen behar genuena konfiantza berres-

kuratzeko". Hala zebiltzala, bigarren gola ailegatu zen eta, behin konfiantza hartuta, gehiago ere izan zitezkeen, partidua bukatu bitartean.

**ETXEAN IRABAZTEA, HELBURU**

Datorren astean, Trintxerpe hartuko du etxean Aloñak, eta partidua ona egin gura du zaleen aurrean: "Golik jaso barik bukatu beharra geneukan, denok lasaitzeko eta halaxe izan da oraingotan. Hortaz, etxean jasotako gol zaparrada guztiz ahaztuta, gogotsu gaude hurrengo partidurako eta konfiantza handiarekin", dio Zubiak.

Lau puntu dituzte oñatiarrek -Bergararekin berdinduta- eta orain etxean irabazten hastea dute helburu.

ESANAK

**"Golik jaso barik irabazi beharra geneukan, denok lasaitzeko eta konfiantza berreskuratzeko"**

Josu Zubia > Entrenatzailea

**OHOREZKO ERREGIONALA > IDIAZABAL-BERGARA**

# Partidu txarra jokatu, 4-1 galdu zuen Bergarak

Idiazabalek epailearen laguntzarekin sartu zituen golak eta bergararrak oso haserre zeuden

**M.A. > BERGARA**

Partidu txarra jokatu zuen Bergarak Idiazabalen, zapatuan, eta epaileak ere kalte handia egin zion. Hala, 4-1 galdu zuen.

"Txarto jokatu dugu", halaxe laburtu zuen Manu Diaz entrenatzaileak partidua. "Geure aukerak aprobetxatzen ez dugu jakin izan eta ia ezer egin barik lau gol sartu dizkigu Idiazabalek". Gainera, oso haserre zegoen epailearen lanarekin: "Bi penalti adierazi dizkigu eta geuri egindakoa ikusi ez; nazkagarria, benetan. Eta nekatuta gaude halako jarrerekin".

**LEHEN GOLA JOKOZ KANPO**

Idiazabalen lehen gola 23. minutuan iritsi zen: "Epaileak berak onartu zigun gero, jokoz kanpo sartu zutela". Ondoren, penaltia adierazi zuen bergararren aurka, baina kanpora bota

zuten. Eta 40. minutuan bigarren gola iritsi zen (2-0). Gainerako golak, bigarren zatian sartu zituzten. Lehenengo kontrerasoan Idiazabalgoek 3-0 egin zuten eta, partidua bukatzeko hamar minutu geratzen zirenean, Urteagak bergararren gol bakarra sartu zuen (3-1). "Ondoren, geuri egin ziguten penaltia, baina epaileak ez zuen halakorik ikusi", zioen Diazek. Eta partidua azken minutuan, Idiazabalen aldeko penaltia adierazi zuen. Hala, 4-1 galdu zuen Bergarak.

Bosgarren jardunaldian, Vasconia hartuko dute etxean Manu Diazen mutilek, azkenengo dagoen taldea. Zaleen laguntzarekin irabazi eta puntuak eskuratzeko dute helburu.

ESANAK

**"Bi penalti adierazi dizkigu eta geuri egindakoa ikusi ez; nazkagarria. Nekatuta gaude halako jarrerekin"**

Manu Diaz > Entrenatzailea

## emaitzak eta sailkapenak

3. MAILA

Sailkapena	Punt.	J.
1. Real Sociedad B	16	7
2. Amorebieta	16	7
3. Beasain	15	7
4. Gernika	14	7
5. Amurrio	12	7
6. Arenas Getxo	11	7
7. Aretxabaleta	11	7
8. Zalla	10	7
9. Baskonia	10	7
10. Elgoibar	10	7
11. Durango	9	7
12. Leioa	8	7
13. Zamudio	8	7
14. Lagun Onak	6	7
15. Laudio	6	7
16. Salvatierra	6	7
17. Santurtzi	5	7
18. Portugalete	5	7
19. Retuerto Sport	5	7
20. Eibar B	4	7

Emaitzak	
Real Sociedad-Retuerto	2-2
Lagun Onak-Amorebieta	0-1
Laudio-Amurrio	0-0
Durango-Baskonia	2-0
Beasain-Zamudio	1-0
Zalla-Portugalete	1-0
Arenas Getxo-Aretxabaleta	0-1
Eibar B-Leioa	2-2
Santurtzi-Salvatierra	0-0
Gernika-Elgoibar	3-0

Hurrengoak	
Salvatierra-Laudio	
Aretxabaleta-Santurtzi	
Baskonia-Lagun Onak	
Leioa-Arenas Getxo	
Zamudio-Durango	
Retuerto Sport-Eibar	
Elgoibar-Beasain	
Amorebieta-Real Sociedad	
Portugalete-Gernika	
Amurrio-Zalla	

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena	Punt.	J.
1. Aurrera Ondar.	12	4
2. Idiazabal	9	4
3. Pasajes	9	4
4. Hondarribia	8	4
5. Trintxerpe	7	4
6. Berio	6	4
7. Ordizia	6	4
8. Zarautz	6	4
9. Tolosa	5	4
10. Oiartzun	5	4
11. Euskalduna	5	4
12. Hernani	4	4
13. Bergara	4	4
14. Mondra	4	4
15. Aloña Mendi	4	4
16. Real Union	2	4
17. EHU-Vasconia	1	4
18. Beti Gazte	1	4

Emaitzak	
Euskalduna-Aurrera Ondarroa	1-2
Trintxerpe-Berio	2-1
EHU Vasconia-Aloña Mendi	0-2
Idiazabal-Bergara	4-1
Zarautz-Tolosa	3-0
Ordizia-Hondarribia	1-1
Hernani-Pasajes	4-2
Oiartzun-Real Union	1-0
Mondra-Beti Gazte	2-1

Hurrengoak	
Beti Gazte-Aurrera Ondarroa	
Berio-Euskalduna	
Aloña Mendi-Trintxerpe	
Bergara-EHU Vasconia	
Tolosa-Idiazabal	
Hondarribia-Zarautz	
Pasajes-Ordizia	
Real Union-Hernani	
Mondra-Oiartzun	

**ERREGIONAL PREFERENTEA > ANTZUOLA-ILINTXA**

# Partidu txarra, baina puntuak etxean

Inolako emoziorik izan ez zuen partiduan Jon Gurutz Godoyk sartu zituen antzuolarren bi golak

ANTZUOLA

**2-1**

ILINTXA

**M.A. > ANTZUOLA**

Partidu eskasa jokatu zuten Antzuolak eta Ilintxak zapatuan, Estalan, inolako emozio barik. Hala ere, etxean geratu ziren puntuak, Jon Gurutz Godoyk sartutako bi golei esker.

Lehen zatia oso berdindua izan zen eta ez bata, ez besteak ez zuten aparteko aukerarik egin. Hala zebiltzala, 42. minutuan iritsi zen gola; falta atera Antzuolak eta buruarekin sareetara bidali zuen baloia Godoyk. Biga-



Antzuolarrak Ilintxaren atera hurbildu nahian.

JOSETXO ARANTZABAL

rren gola bigarren zatia hasi orduko iritsi zen. Area barruan galduta geratu zen baloia aprobetxatu zuen Godoyk sarera bidaltzeko. Eta partidua bukatzeko lau minutu geratzen zirene-

an, Ilintxak sartu zuen gola. Berdintzeko ahaleginetan ibili ziren gero legazpiarrak, baina etxean geratu ziren hiru puntuak.

"Zelai berrira ohitzen dabilta oraindik gure jokalariek, baina

poliki-poliki gora egiten gabilta", jakinarazi digu presidente ak Jose Angel Fernandez. "Erregional preferente mailan oso parekatuta dabilta talde guztiak eta geuk ere hor egon gura dugu".

ESKUBALOIA &gt; GIZONEZKOEN EUSKADIKO TXAPELKETA

# Orain arteko bi partiduak irabazita, Ford Mugarrik lau puntu ditu jada

Ohi baino defentsa lan eskasagoa egin zuen Arrasateko taldeak atzo, Corazonistasen kontra, baina markagailuan aurretik joan zen, une oro

FORD MUGARRI

27-21

CORAZONISTAS

GOIATZ ARANA &gt; ARRASATE

Partidu juxtua izan zen Ford Mugarri eta Corazonistasen artekoa; oso berdindua, zati bietan. Arrasatekoak hasi ziren irabazten, eta Gasteizkoak momentu bakar batean ere ez ziren markagailuan aurretik ipini. Lehen zatian, pare bat goleko errenta izan zuen Ford Mugarrik, baina bukaera alderako laukoa izatera ailegatu zen; markagailuak 14-10 emaitza erakusten zuen, atsedenera joan zirenean. Bigarren zatiko lehen bost minutuetan, gasteiztarrek bi goletara murriztu zuten aldea; gero, 4-5ekoa izatera pasa zen, berriz; markagailua berdindu egin zen, hurrena; eta arrasatearrek buelta eman zioten, amaieran. Hala, 27-21 amaitu zen neurketa, Iturripen.



Arrasatearrek erasotu zuten momentu bat, atzoko partiduan horretatik asko egin ez bazuten ere.

JOSETXO ARANTZABAL

**DEFENTSAN, OHI BAINO AHLAGO**

Garaipena eskuratu arren, Edu Orgaz entrenatzailea ez zegoen gustura taldeak egindako jokoa-ekin: "Ez dugu oso partidu ona egin, ez dugu erritmoa guk markatu eta kosta egin zaigu partiduan sartzea. Eurek, gainera, bakarkako joko asko egin dute eta hori ez da guri ondoen doakiguna". Hain justu, aurkariaren bakarkako joko hori dela-eta, Arrasateko mutilak ez ziren defentsan ohi bezain ondo ibili. Min egin zieten Gasteizkoek, ez zuten kon-

traerasoan ateratzea lortu, ezta jokoa nahi adina kontrolatu ere. Markagailuan ez zen, baina, hala-korik sumatu eta bi puntuak etxean geratu ziren.

Euskadiko Txapelketako bigarren partiduak izan zen atzokoa Edu Orgazen taldearentzat. Lehendabizikoa joan den astean jokatzekoak ziren baina, Urdulizek hala eskatuta, eguenera atzeratu zuten. 31-25 emaitzarekin, Ford Mugarri izan zen nagusi eta, beraz, orain arte jokoa egon diren lau puntuak eskuratu ditu

Arrasateko taldeak. Uneotan, hiru talde daude berdinduta, lau-na punturekin, sailkapeneko lehen postuetan.

**USURBIL ETA BASAURI**

Hurrengo aste bukaeran ere saio bikoitza egingo dute Orgazen mutilek. Basauriren kontra neur-tuko dituzte indarrak, batetik; eta Usurbilen aurka, bestetik. Basaurik txapelketa oso ondo hasi ez duen arren, bikain amaitu zuen denboraldia eta, hortaz, neurketa gogorra izango delakoan dau-

de arrasatearrak. Usurbili dago-kionez, bestalde, lasaiago daude; aurten igo den taldea da eta, beraz, bi puntuak eskuratzea espero dute.

Ford Mugarrik zazpigarren postuan amaitu zuen aurreko denboraldian; eta, apurka-apurka, hobetzen joatea dutenez hel-buru, Orgaz entrenatzaileak uste du aurten bosgarren tokia bere-ganatzeko moduan izango dire-la. "Hori, noski, gauzak espero moduan ateratzen baldin badira", azaldu digu.

ESKUBALOIA &gt; EMAKUMEZKOEN TXAPELKETA

## Oñatiko neska gazteek ezin izan zuten Kukullaga gainditu

Ligako talde indartsuenetarikoa da Etxebarriko Kukullaga; partiduak galdu egin zuten arren, lan polita egin zuten Manu Garmendiaren neskek



Uste zutena baino hobeto moldatu ziren oñatiarrak Etxebarrikoen kontra.

J.A.

VERKOL ALOÑA

20-26

KUKULLAGA

A.B. &gt; ARRASATE

"Liga orain hasten da guretza-ko", adierazi zigun Oñatiko neska gazteen entrenatzaile Manu

Garmendiak egubakoitzeko partiduaren ostean. Izan ere, oñatiarrek ligako bi talde garrantzitsuenak izan dituzte, aurre-

aurre, ligako lehenengo bi partiduetan: Zarautz eta Kukullaga. Bi partiduak galdu egin dituzte eta orain partiduak irabazten

hasteko garaia iritsi zaiela uste du Garmendiak. Maila mantentzea da Oñatiko nesken helburua aurten eta horretarako aukerak dituztela uste du entrena-tzaileak.

Egubakoitzeko partiduak bel-dur pixka batekin hasi zuten oñatiarrek; talde indartsua zeukaten aurrean. Dena dela, uste zutena baino hobeto moldatu ziren Etxebarriko nesken aurka. Lehenengo zatian, nahiko parekatuta ibili ziren; bigarre-na, ordea, gogorragoa izan zen. Dena dela, soilik hiru puntuko aldea izatera ere iritsi ziren momentu batean. Etxebarriko-ek, baina, markagailuan gora egin zuten eta sei goleko aldea-ekin partiduak irabazi zuten.

Datorren astean, Ermuaren kontra jokatu dute Oñatiko neskek. Zapatuan, ligako lehenengo garaipena lortzeko esperantza dauka Garmendiak.

## emaitzak

## MAILAZ MAILA

## LEHEN TERRITORIAL MAILA

Ereintza 31 - Soralue BKE 31

Decotena Pulpo 30 - Aloña Mendi 21

## BIGARREN TERRITORIAL MAILA

Arrasate 26 - Leizaran 25

## KADETE MAILAKO GIZONEZKOAK

Talleres Chapime Arra. 26 - Elgoibar 40

## GAZTE MAILAKO GIZONEZKOAK

Urola 23 - Bergara Soralue 20

## GAZTE MAILAKO EMAKUMEZKOAK

Citroen Chap 10 - Ereintza Agua. 39

Harmailatik

Debagoieneko  
kirola GOITBnAstelehenero  
22:15ean.Goitb  
Guzuzkoak  
Ikusteko!



PILOTA > XXVI. SAN MIGEL TXAPELKETAKO FINALAK

# Uriartek goi mailan ibilitako pilotaria dela erakutsi zuen Oñatiko Zubikoan

Juaristi-Rezustak irabazi zuten gazteen kategorian (22-10); eta Uriarte-Kantxok, afizionatuetan (22-8). Ez ziren puntako pilota partiduak izan.

GOIATZ ARANA > OÑATI

Zapatuko 22:30ean hasi zen jaialdia Oñatiko Zubikoa pilotalekuan eta gauerdia pasatxo kalean ziren bertan batutako zaleak. Datu horrek, batetik; eta markagailuak, bestetik, erakusten dute partidu azkarrak eta joko gutxi-koak izan zirela biak.

Gazteak izan ziren kantzara irteten lehenak. Juaristik (Azkoitia) eta Rezustak (Bergara) erraz menderatu zituzten Hernaniko Azpitarte eta Azpeitiko Aizpuru (22-10). Azpitarte ez zen nahi bezain ondo aritu atzean, eta Aizpuru tokia aurkitu ezinean ibili zen; huts asko egin zuten. Rezustak, aldiz, lan polita egin zuten ezkerrekin, eta txukun aritu zen Juaristi ere. Sakez dezente tanto egin zituzten eta aise ailegatu ziren 22 tantotara.

AFIZIONATUAK

Gazteen arteko lehia bukatuta, afizionatuen txanda iritsi zen. Uriartek (Abadiño) eta Kantxok (Galdakao) Antzuolako Mendizabalena eta Eugiko Linzoainen kontra neurtu zituzten indarrak. Baina bigarren neurketa honetan ere, gauza on gutxi: pilota asko txapara eta behera.

Mendizabal-Linzoain bikoteak ez zuen joko ona egin. Antzuolako partidu askotxo ari da jokatzen azken boladan egubakoitzean bertan, Aizarnazabalen eta horrek ere eragingo zuen, ziurrenik, Oñatiko partiduan. Dezente txukunago aritu zen bikote irabazlea. Uriarte bera, esaterako, kategoriaz jaitsi bada ere aurten, profesionaletan ibilitakoa da, ASPEN, eta goran egondakoa dela erakutsi zuen, zapatuan. Indartsu iku-



Azpitarte-Aizpuru eta Juaristi-Rezusta, partiduko momentu baten.

J. ARANTZABAL

si genuen, besteak beste, sakea ateratzen. Eta Kantxok, bere aldetik, oso ondo lagundu zion. 22-8 irabazi zuten partidua.

Puntako partidurik ez da izan, beraz, XXVI. San Migel Txapelketako finaletan, eta zaleen partetik ere ez da berotasun handirik izan.

Txapelketako antolatzaileek adierazi digutenez, jendea eta, batez ere, oñatiarrak, faltan bota dituzte harmailetan.

# Jone

triLINGUA da

3

LINGUA

Komunitatea

## Zatoz

# triLINGUA

Komunitatera!

Goazen **hiru hizkuntzatan** bizi eta komunikatzen den komunitatera!  
**Goazen Prestatuenean komunitatera!**

join us!  
**únete!**  
zatoz!

Zatoz MONDRAGON LINGUARA!

### MONDRAGON LINGUA metodoa

Gure metodoak urteetako esperientziaren bermea du. Eraginkorrena da, ikasteko hiru bide optimizatzen baititu:

- Informatikako azken teknologiak.
- Klase presentzialak.
- Jarraipen pertsonalizatua.

### Balio erantsiko zerbitzuak

- **Antzezlan** interaktibo eta atseginak.
- **Linguamailak.** Ikaskuntza-pilulak ikaslearen posta elektronikoan.
- **Extranet: bertako edukietara on-line sarbidearekin.** Jarduerak, ariketak, intereseko estekak, bideoak, albisteak, hiztegiak, irakurketa, gaurkotatuna eta askoz gehiago.
- **"6 o'clock tea"** play school-eko haurrentzat.
- **Talde txikiak.**
- **Mediateka.** Mota guztietako materialak daude ikasleen esku: multimedia, bideoak, liburuak, entzuteko zintak, aldizkariak, etab.
- Eta, gainera, ditugun **lankidetzak akordio guztien** onurak dituzu: Arizmendi, Ser katea, FNAC, BOS, ARTIUM, Donostiako Orfeoia...

eta gainera...

- **Haurrentzako udalekuak**
- **Udako ikastaroak atzerrian**
- **Ikastaro trinkoak** uztailan eta irailean
- **Hitz egiteko** klaseak
- **Larunbatetan** klaseak
- **Skype bidezko** klaseak
- **Murgiltze klaseak** helduentzat
- **Itzulpen zerbitzua**

Cambridgeko azterketak

azterketak gure zentroan bertan egiten dira. Prestatzeko klase bereziak Junior mailako ikasleentzat.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikaslea baldin bazara, **%25a arteko deskontua** izango duzu klase presentzialetan.

www.mondragonlingua.com

ARRASATE-MONDRAGON  
Avda. Alava, 4  
943 71 20 55

OÑATI-OÑATE  
Olakua, 14  
943 71 60 00

matrikula zabalik

HUMANITY AT WORK

QUALITY

MENDIKO BIZIKLETA &gt; IRTEERA BERGARAN

# Debagoieneko zirkuitua oso erantzun ona jasotzen dabil

Debagoieneko mendi bizikleta zirkuituaren hirugarren proba Bergaran egin zuten atzo

Hiru ibilbide antolatu zituzten parte-hartzaileak beraien mailara egokitu ahal izateko

ARRITXU BARRUSO &gt; BERGARA

Gatzagako eta Oñatiko probaren ostean Bergarara iritsi da aste bukaeran Debagoieneko mendi bizikleta zirkuitua; urriaren 17an eta 18an, hurrenez-hurren, Arrasaten eta Eskoriatzan egingo diren probekin amaituzat emango dute aurtengo zirkuitua. Helburua da zirkuitua urtetik urtera indartzea eta lehen herri bakoitzak bere aldetik antolatzen zituen probak batzea eta antolakuntza ere bateratzea. Horretarako blog bat ere ipini dute martxan: [www.goiena.net/blogak/debagoienamtb](http://www.goiena.net/blogak/debagoienamtb).

Lehenengo urtea izateko emaitza ezin hobekak lortzen dabilta. Orain arte egindako hiru probetan parte-hartzaileen kopurua berrehundik gorakoa izan da. Domekan Bergaran egindako proban 203 ziklista igo ziren bizikleta gainera.

IBILBIDE ERTAINA, GEHIENEK

09:00etan abiatu ziren Agorrosinetik Gorla ingururantz. Antolatzailerik hiru ibilbide prestatu zituzten, bakoitzak nor bere neurriko proba egin zezan. Dena dela, guztiek igo behar zuten Gorlaraino. Ibilbide motza aukeratu zutenak Gorlatik zuzenean Bergarara jaitsi ziren (22 kilometro); ibilbide ertaina egin zutenak Gorlatik Elosumendiraino joan ziren (38

kilometro) eta luzeena aukeratu zutenak Kurutzebakerrera igo behar ziren Bergarara itzuli aurretik (44 kilometro). Gehienek ibilbide ertaina aukeratu zuten, baina helmugara iristen lehena ibilbide luzea egindakoa izan zen; bi ordu eta 40 minutuan egin zituen 44 kilometroak. Dena den, 12:00ak inguruan iritsi ziren ziklista gehienak.

Guztiak ere gustura ibili ziren Gorla inguruan eta ibilbidea oso polita iruditu zitzaizela azpimarratu zuten gehienek. Politai baina gogorra ere bai. "Lehenengo igoera oso gogorra iruditu zait. Gero, apur bat berotu ostean dena hobeto joaten da eta errazagoa egin zait. Itzuleran, gainera, dena jaitsiera izan da. Baina asko gozatu dut, oso paraje polita iruditu zait", adierazi zigun usurbildar batek amaieran. Kexa bakarra egon zen: toki batzuetan seinaleak falta zirela eta batzuk galduta ibili zirela.

ETXEOAK, POZIK

Debagoienekoak izan ziren ziklista gehienak, baina Gipuzkoako beste herri eta eskualde batzuetatik ere jende asko etorri zen, batez ere Goierri aldetik. Usurbildik, esaterako, hamar laguneko taldea etorri zen eta Zumarragatik ere talde polita etorri zen. Etxeko-



Txirrindulari talde bat Gorla gainera iristen.

JOSETXO ARANTZABAL

ak pozik ikusi genituen proba amaitzean eta gehienek zirkuitua jarraitzeko asmoa azaldu zuten. Horrelako zirkuitu bat etxean bertan izatea oso pozgarria dela zioten denek.

DATUA

# 203

PARTE-HARTZAILE

Debagoieneko mendi bizikleta zirkuituaren barruan egindako hiru probetan 200 pertsonatik gora eman dute izena. Arrasaten eta Eskoriatzan ere kopurua mantentzea aurreikusten da.



Lagun artean gustura ibili ziren ziklistak.

JOSETXO ARANTZABAL

PARTE-HARTZAILEEKIN HIZKETAN



Iñaki Landabea  
Oiartzun

"Ibilbide luzea egin dut, 40 kilometro inguru dituen. Pasa den urtean baino lokatza gutxiago zegoen aurtan eta hobeto. Gogorra izan da hasiera batez ere, baina oso polita izan da".



Oscar Oncala  
Bergara

"Oñatiko proban ere izan nintzen, baina Bergarako egiten dudana lehen aldia da. Ondorengoetan ere parte hartzeko asmoa daukat. Oso ondo iruditzen zait Debagoieneko zirkuitua antolatzeko ideia".



Ekleylson Marques  
Usurbil

"Brasildarra naiz eta betidanik izan dut mendi bizikletarako zaletasuna. Zazpi urte daramazkit Euskal Herrian eta horrelako proba guztietara joaten naiz. Gaurkoa oso polita izan da".



Haritz Kortabarria  
Aretxabaleta

"Oso ondo ibili naiz. Jende asko etorri da, Debagoienekoak batez ere. Lagunekin eta ezagunekin topo egin dut eta gustura ibili naiz. Etxean bertan horrelako proba bat izatea oso ondo dago".



Mikel Mujika  
Andoain

"Tramu batzuetan galduta ibili naiz, toki batzuetan seinaleak faltan bota ditugu. Dena dela, ibilbidea polita iruditu zait. Lehenengo 30 kilometroak izan dira gogorrenak".

Gorka Kintana > Saskibaloia jokalaria

# "Iraurgi taldera etorrira, azken urteetan izan dudana ametsa bete dut"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Ibilbide guztia etxeko saskibaloia taldean egin ondoren, Gorka Kintana arrasatearrak Azpeitirako bidea hartu du. Aurten, EBA ligako Iraurgi taldean jokatu du, Jon Txarkategiren gidaritzapean. Ia egunero entrenatu behar du; hala ere, gurekin egoteko tartetxo hartu du.

**Nola sortu zitzaizun Azpeitiko Iraurgen jokatzeko aukera?**

Nik jakin nuen interesa zutela irailko bigarren astean; nahiko berandu, egia esan. Oraingo gauza izan da, azkeneko momentuko gauza. Oso pozik nago egin dudana aldaketarekin, baina azken momentuan, presaka ibili naiz.

Ointxen jokatu izan duen Gorka Alartziaren bidez jakin nuen interesa zegoela. Bera iaz joan zen, eta aurten ni.

**Taldekideen artean ezagunak izateak samurtu egingo du esku hartzea. Ez da hala?**

Bai, hori horrela da. Egia esan, taldekide ia guztiak ezagutzen ditut, euren aurka jokatu izan dugulako. Bistaz behintzat ezagunak dira. Baina, egia da eskertzen dela taldean ezaguna den norbait izatea, taldean sarzea samurtu egiten du-eta.

**EBA ligara egin duzue salto aldaketarekin. Nolako aldaketa izan da?**

Bi aste besterik ez dira Azpeitian nagoela; hortaz, ez dut izan astirik gauza larregi ikusteko. Bitxikeria bezala esango dizut Arrasateko taldean ni nintzela altuenetarikoa; eta, Azpeitian, ostera, txikienetarikoa naiz; ni baino txikiagoa Alartzia da. Hori da nabaritu dudana. Teknikoki ez dut alde handirik nabaritu; fisikoki, ostera, jendea oso handia da eta oso azkarrak dira. Esan daiteke hori dela ezberdintasuna.

**Orain urte batzuk Arrasateko taldearekin izan zenuen EBARA igotzeko aukera. Esan daiteke ametsa bete duzula?**

Bai, duda barik. Hiru urte egon gara borrokan EBARA igotzeko. Hirugarren urtean lortu genuen igotzea eta arazo ekonomikoengatik ezin igo izana oso gogorra izan zen. Azkeneko hiru urtetan izan dugun ametsa betetzea izan da.

**Taldeko beteranoetako zinen Arrasaten; Iraurgen, adinez nagusia bai, baina taldean berria. Zela hartu zaituzte?**

Egia esan oso ondo hartu nautela. Azken finean, inoiz ez dugu elkarrekin jokatu, baina ezagunak gara. Diozun bezala, Arrasaten beteranoena nintzen, Azpeitian ez naiz beteranoena, baina bai nagusienetarikoa.



Gorka Kintanak, 28 urterekin, Gasteizen egiten du lan eta Azpeitira joaten da entrenatzera ia egunero.

A.E.

**Nola gogoratzen duzu orain dela bi asteko debuta?**

Ekipoz aldatzea azkeneko momentuko gauza izan denez, egun gutxi egin ditut entrenatzen; hala, lehenengo partidura bi entrenamendurekin bakarrik joan nintzen. Entrenatzaileak jokatzeko aukera eman zidan eta momentu polita izan zela aitortu behar dut.

**Etxean daukazu gertutasuna ez izan arren, beste motibazio batzuk izango dituzu kantxan, ezta?**

Bai, hori da. Nik ez daukat beste taldekideek dituzten ezagunak, hori ezberdina da. Baina jende asko joaten da partiduak ikustera eta hemen ez dagoen zarata eta animuak ematen dituzte. Horrek ere laguntzen du jokatzeko orduan.

**Saskibaloia zaletasuna izango duzu. Orain, horrenbeste entrenamendurekin, zaletasuna baino zerbait gehiago bihurtu da?**

Ez, nik beti jokatu izan dut saskibaloian, eta zaletasun beza-

ALDEA

**"Esango dut Arrasaten altuena nintzela eta Azpeitian, ostera, txikienetarikoa"**

OINTXE! ELKARTEA

**"Arrasaten kolpea izan da ni joatea; lehen txarto zeuden gauzak eta orain okerrago"**

ALDE ON ETA TXARRAK

**"Entrenatzaile askok esan didate defentsan txarra naizela; hortaz, egia izango da"**

la egin izan dut. Egia dena da etxetik kanpo jokatu gero, denbora gehiago behar duzula bidaiatzeko. Bost egunetik lautan entrenatzera joaten naiz. Hala ere, zaletasun bat izaten jarraitzen du.

**Nola hartu dute Arrasateko taldean zu joan izana?**

Egia esan, kolpea izan da. Nik, joan edo ez joan, erabakia hartu aurretik hemengoekin berba egin nuen, batez ere Javi Zubanorekin. Esan behar dut, babes handia eman didatela. Kolpea izan da taldearendako; lehenik ere gauzak oker zeuden, eta orain ni joanda okerrago geratu dira.

Eurendako golpe gogorra izan den arren, niretako aukera ona da; horregatik animatu egin nautela eta hori eskertzekoa da.

**Saskibaloian hasi zinenean, espero zenuen iritsi zaren lekura iristea?**

Ilusioa beti izaten da. Ni kadetea nintzen garaian Arrasaten Urbina-Maltzaga taldea zegoen; esan daiteke garai oso ona izan zela hori. Baina, orduko EBA liga eta oraingoa oso ezberdinak

dira. Ordukoa bigarren maila bat zen. Gogoratzen dut jokalaria beltzak etortzen zirela, amerikarrak... hor jokatzeko ametsa zen niretzako, eta bete dut.

**Zure ibilbidean ze entrenatzaile aipatuko zenuke?**

Entrenatzaile guztiek erakutsi didate zerbait. Gainera, harreman ona dut guztiekin; orain, gertutasunagatik Zubanorekin, adibidez, harreman ona dut. Baina entrenatzaile bat aipatu beharko banu, Gorka Zurutuza aipatuko nuke. Urte asko egon ginen elkarrekin, eta adinagatik ere izan daiteke, baina asko ikasi nuen berarekin.

**Jokalaria bezala, zeintzuk dira zure alde onak eta txarrak?**

Uste dut alde txarrak gehiago izango ditudala onak baino. Txar bezala esango nuke entrenatzaile askok esan didatena: atzealdean, defentsan, txarra naizela. Askok esan didate hori, hortaz zerbaitegatik izango da! Atzean txarra naizela esaten didatenez, esango dizut, aurrealdean, saskiratzeak egiten, ona naizela!



Gaztetxo batzuk saskibaloian jolasten, eskola kirolaren barruan.

GOIENKARIA

KIROLA &gt; ESKOLA KIROLA

## Gurasoen lana eskola kirolaren barruan

Gurasoek lan handia egiten dute eskola kirolean, baina euren jarrera ez da eredugarria izaten beti

OIHANA ELORTZA &gt; ARRASATE

Kirolaren inguruan idatziko dute Borja Moia onatiarrak eta Eloorrioko Josu Murgoiatiok. Eta lehen artikuluko gaia eskola kirola aukeratu dute.

Laster batean emango zaio hasiera eskola kiroleko plangintzari. Plangintza honen baitan, larunbatetan, partidak izaten dituzte; hala nola, futbola, saskibaloia, eskubaloia, pilota... Herri bakoitzak bere joko sistema du, batzuk urte guztia kirol berdina lantzen pasatzen dute, beste batzuk "multikiroleruntz" jotzen dute, ausarten batzuk jolas kooperatibotan barneratzen dira kompetibitate alderatu nahian... Antolaketan ere nabarmenak dira aldeak: herri batzuetan ikastetxeka hartzen dute parte, bakoitzak bere ikastetxeko kamiseta txukun eta guzti; beste batzuk ikastetxeak nahastuz osatzen dituzte taldeak eta beraien artean lehiatzen dira, zein eskolakoak diren kontutan izan gabe. Badaude eredu batzuk sexuka parte hartzen dutenak eta, noski, eredu mixtoak ere bai, mutil zein neska nahasturik jokatzen dutenekoak.

Eredua edozein izanda ere, bi kolaboratzaile hauen esanetan, oso zaila da eredu hauek aldatzea,

urteak daramatzate era batera funtzionatzen eta oso lan astuna da guzti horri "buelta" ematea.

GURASOAK VS ENTRENATZAILEAK

Eredu hauek, baina, badituzte amankomunak diren faktore batzuk: haurrak eta gurasoak. Azken horiek aipatu gura dituzte kolaboratzaileek: "Gurasoak edo beraiek erreprezentatzen duten *entea*: entrenatzaileak".

Badakigu orokortzeak akatsa garamatzala, baina argi dagoena da guraso-entrenatzaile hauek orokorrean antzerako jarrera izaten dutela, Lanestosan

hasi eta Baionaraino. Askotan garrasika ikusten ditugu, haurrei jokaldiak *telebistatzen*, zerbait gaizki egiten dutenean; animatu beharrean, errieta eginez; albo-ko marran alde batera eta bestera joan etorri azkarrak egiten; jasotako gol guztietan zerura begiratzen eskuak zabalik, sartutako gol bakoitza poz handiz ospatzen; eta okerrena, epaileak hartzen dituen erabaki "okerrak" zuzentzen une oro!!! "Ez gara konturatzen, eskola kirola haurrak gozatzeko sortua dagoela eta ez begira ari diren gurasoak asetzeko".

## GURASOEN DAKO DEKALOGOA

- > Ez egin errietan huts egin duelako; ikasten ari dira! Izatekotan, gauza positiboak esan. Horrela bai motibatuko direla!
- > Ez saiatu *telegidatzen*. Utzi erabakiak hartzen. Kirolaz asko badakizu ere, ez ibili denbora guztian zer egin behar duten esaten.
- > Arauak betez, jolastera bultzatu beti.
- > Epailearen lanari garrantzia eman; eta ez jendeaurrean jardun haien kontra.
- > Aldaketak guztiek parekatu samar jolas dezaten erabili. Eta ez begiratu bakarrik azken emaitzari, eta trebeenak denbora gehiago jolasten jarri beti. Denek dute disfrutatze eskubidea.
- > Txalotu jokaldi on guztiak, egilea zure taldekoa edo kontrakoa den erreparatu gabe. Eredugarria da haurrantzat.
- > Erakutsi esfortzu zintzoa garaipena bezain garrantzitsua dela. Horrela, jokoaren emaitza errezago onartuko du.
- > Baloratu saiakera eta ahalegina, azken emaitza baino gehiago. Partida amaitu denean, baloratu benetan garrantzitsua dena: hobekuntza pertsonala eta kolektiboa.
- > Kritika ongi bideratu. Jokabide okerrak kritikatu egin behar dira zuzendu ahal izateko, baina behar den lekuetan planteatu behar dira.
- > Haurrak dira protagonista. Estimatu egiten duten lana.

AUTISMOA &gt; KANPAINA

## Autismoaren tratamenduaz ohartarazi gura dute

4 eta 6 urte bitarteko 400 umetatik batek du autismoa Gipuzkoan, Gautenaren arabera

O.E. &gt; ARRASATE

Autismoa dutenen tratamenduaren aldeko kanpaina abiarazi du Gautena elkarteak.

Gautenako ordezkariak azaldu duten moduan, autismoa duten umeen kopurua hazten doa, baina ez autista gehiago daudelako, autismoaren sintomak gero eta lehenago antzematen dituztelako adituek. "Behar bezala gizarteraz-

teko, bakoitzak bere tratamendu berezia behar du, eta horretaz ohartarazi gura ditugu herri-tarrak", esan du Gautenako Joserramon Larrañagak.

Bestalde, Kaliforniako institutu entzutetsu batek Gautenarekin batera egingo du autismoaren ezaugarriak zehazteko ikerketa. Horretarako, Gipuzkoako elkarte 50 lagunen odola bidaliko dute AEBra.



Ume bat leihotik begira.

CHAMPUSUICIDA

&gt; BIHARAMUNENKO PILULA

### Biharamuneko pilula errezeta barik saltzen dute dagoeneko Hego Euskal Herriko botiketan

Hego Euskal Herriko farmazietan errezetarik gabe eskuratu daiteke dagoeneko biharamuneko pilula. Botiketan hoge euro ingururen truke eros daiteke pilula eta Osakidetzako eguneko zentroetan, berriz, doan. "Orain arte medikuaren errezetarekin eskuratu ahal zen bakarrik pilula, baina gaur egun bi modu daude: osasun zentroetan doan, eta farmazietan", dio Ihart Bilbaok, Arrasateko Amezia Urtzelai botikako langileak.

Hala ere, osasun zerbitzuetatik behin eta berriz nabarmendu gura izan dute biharamuneko pilula hori, bakarrik beharrezkoa denean hartu behar dela; eta batez ere, beste antisorgailu mota batzuek huts egin dutenean edo babes neuririk hartu ez denean; biharamuneko pilula ez dela antisorgailua alajaina.

&gt; HEZKUNTZA

### Haurrengan irakurketa ohitura sustatzeko Bularretik Mintzora egitasmoa dute Aramaion

Galtzagorri Elkarteak Bularretik Mintzora kanpaina aurkeztu berri du Aramaion. Kanpaina horren helburua da 0 eta 6 urte bitarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin.

Kanpainaren arduradunek adierazi dute irakurketa oso garrantzitsua dela umearen garapenean eta "umeari irakurtzen ematen diogunean umearen garapen intelektuala, emozionala, soziala eta hizkuntzarena estimulatzen ditugula".

Hori guztia lortzeko, guraso eta irakasleak formatzea da Bularretik Mintzora kanpainaren helburua. Hitzaldiak eta Pello Añorga ipuin kontalariaren ikastaroa antolatu dituzte horretarako. Juan Carlos Alonso psikologoa, Juan Kruz Igerabide idazlea eta Itziar Zubizarreta irakaslea egongo dira hizlarien artean.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,  
zatoz gure webgunera



**guraso.com**

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **LEHIAKETA**  
Udako argazkien lehiaketako irabazleak aukeratu ditugu > 30



> **ROCKA**  
El Desv n del Machok eta Capsulak emanaldi itzela egin zuten Bergaran > 33



> **BLUES**  
Belceblues taldeak emanaldi bikaina egin zuten Aretxabaletan > 33



MARITXU KAJOI 09'

## Gripearen aurkako miraria

### MIRARIA

'Marifluak' banatu zituen Kajoik arrasatearrak gripearengandik babesteko

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Fresko egin zuen bariku gauean eta neska asko arropa gutxirekin ikusi genituen Arrasaten; dotore joatearren ordaindu beharreko prezioa. Gripea harrapatzeko arrisku handia zegoen eta gauzak dauden moduan, griperen bat harrapatuz gero A Gripe izango zen seguruenik. Maritxu Kajoik erremedioa ipini nahi izan zion arriskuari. Tamifluari konpetentzia eginez, herrita-

rrei eta festara hurbildutakoei *Mariflu* izeneko pilulak banatu zizkien. Aurtengoa, beraz, A Gripearen aurkako miraria izan da.

Sendagaiak eta alkohola nahastea txarra dela esaten dute medikuek. Oraingoan ere nahastea arriskutsua zen: *Mariflua*, txikitoak eta *kubatak*.

Maritxu Kajoik, baina, horretan ere pentsatu zuen. Telebistan sendagaien iragarkiekin egiten duten bezalaxe, zenbait ahol-

ku ere eman zituen txikiteroen zaindariak: norberaren edariaren alkohol maila neurtzea, guraso eta umeen aurrean itxura mantentzea eta zalantzaren bat izanez gero, konfiantzazko tabernari bati galdetzea. Ez zuten lan makala izango bariku gauean Arrasateko tabernariak mediku lanak egiten.

Dena dela, izan zen gaizki ulerturik ere mirariarekin, biharamuneko pilularekin nahastu

zuten-eta batzuek. Mirari bikoitza izango ote da aurtengoa? Hila-bete batzuk barru ikusiko dugu hori.

Argi dagoena da *Marifluak* oso ondo egin ziela Arrasatera parranda egitera joandako guttietan. Goizaldera arte iraun zuten-eta dotore dotore batzuk eta ez hain dotore beste batzuk. Maritxu Kajoik iragarri zuen moduan zapatukoa ez zen gripea, *bixamona* baizik.





## UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

# Hauek dira irabazleak!



**1** **INTSEKTU KOLORETSUA** / Garikoitz Iturbe (Aretxabaleta).

Brasil, Argentina eta Paraguay banatzen duen urjauzi indartsuetan. Indar basati hauen artean, naturak alde samurra erakutsi zigun: intsektu txiki koloretsuak guregana bidaliz.



**2** **TXIRRINDAZ** / Ane Jauregi (Bergara).  
Santa Barbaran, Donibane Lohitzuneko paraje ederrenean, atera genuen aurtengo abuztuaren; a ze oroitzapenak ekartzen dizkigun! Halako paisaia bukollikoetan iraganera salto egiten dugula dirudi...



**3** **ATELIK BEGIRA** / Martin Uriarte Askasibar (Arrasate).  
Udan ateratakoa da Alpujarrasen, Andaluziako horma txuri eta misteriosuetan; lurralde baten marka. Gure laguntzua, misterioak era-karrita edo katuaren bila dabil?

### 137 LEHIAKIDE

Lehiaketan 137 lagunek hartu dute parte. Guztira, baina, 416 argazki jaso ditugu. Azkeneko egunean bertan, 18 lagunek bidali zizkiguten erretratuak. Hala ere, gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; asko dira eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta daudenak jaso ditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiak dute gurean lekua, horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

### GOIENA POZIK

Iazko erantzun zabalari eutsiz, bosgarren edizio honek erakutsi du degaboiendarren artean finkatzen doala lehiaketa. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako.


### EPAIMAHAIA

Goienako eta Bergarako Kiñu argazki dendako kideek osatu dute epaimahaia eta ez da erraza izan hiru saridunak aukeratzea. Saridunek asteen jasoko dute saria. Egubakoitzeko Goienkaria-n izango duzue irabazleok ezagutzeko aukera.

### Sariak



**1. saria: Olympus E-420 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.



• **2. saria:** Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n aste bukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne, Arrasate Bidaiek-en eskutik.

• **3. saria:** bi pertsonarendako afaria/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51



## UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**EKILOREAK.** 2009ko oporretatik bueltan gentozela autotik ateratako argazkia. /Argazkia: Lorea Ondarra /Arrasate



**NEPALEKO TXIMELETA.** Nepaleko Pokhara herrian hartutakoa da. Peace Pagodatik dago aterata eta atzean ikusten diren herria eta lakua Pokhara-koak dira. /Argazkia: Naiara Alonso /Bergara



**HARRI ARTEAN.** Hemen gaude harri artean eta Anetoko glaziarra atzean kriston egurialdiakin.. /Argazkia: Iban Dominguez



**ORGIKO OIHANA.** Pakea, lasaitasuna, freskotasuna, haizearen zurrumurrua, txorien kantuak,... Hau da Orgiko oihanean begiak itxi ezker somatzen dena. Aspaldiko harizti hau Nafarroako Ultzama bailaran aurkitzen da, aurtengo ekainean egon ginen bertan. Guztiaz ahaztu eta beste mundu baten murgiltzea bezela izan zen, zoragarria! /Argazkia: Mikel Kortabarria /Oñati




**UMEAK URETAN JOLASEAN.** Udaipur hirian (India) ateratako argazkia. City Palace aurrion umiak uretan jolasean. /Argazkia: Mikel Fernandez de Arroiabe /Aretxabaleta



**ANIMALI ITXURA DUEN ARROKA.** "Las Negras" hondartzan (Almería) aterata dago. Uztaillean. Animali itxura duen arroka. /Argazkia: Miren Urkia /Oñati



**ATE OSTEAN HAINBAT ISTORIO.** Ate bateko sarraila eta alda-ba agertzen dira argazkian. /Argazkia: Maika Torres /Oñati



**MAITEMINDUAK.** Aurtengo abuztuan ateratako argazkia honetan maitemindu bi agertzen dira Azurreko lakuan. /Argazkia: Iker Badiola /Bergara



**ITSASHARRIAK.** Arrantzara joan ginen, itsas beheara aprobetxatuz, baina batzuk harri ederrak aukeratzen ari zuten, itsasoak bere joan etorrian moldatutako harriak, itsas harriak. /Argazkia: Osane Lizarralde /Arrasate

Babeslea:



Laguntzaileak:



**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51



## UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA V. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)



**FISCAL HERRIKO ELIZA ZAHARREKO ARKUA.** Fiscal herrian, 2009ko abuztuan ateratako argazkia. Bertan, eliza zaharreko arkua ageri da. /Argazkia: Josebe Landaluze /Arrasate




**DANTZARIAK BIRAKA.** Argazki hau Errioxako Anguciana herrian aterata dago. Jaiak ziren abuztuan eta aldatik behera biraka joan ziren dantzariak zankoekin. Argazkian ikus daitekeen bezala "Cuesta de Danzadores" da kalearen izena. /Argazkia: Rosa García /Bergara



**RABATEKO MUTILA.** Rabat hirian (Moroko) abuztuan ateratako argazkia, bertako mutil bati. /Argazkia: Markel Eguren /Bergara



**MUNDUKO BIGOTE HANDIENA IZANDAKOA.** Jaisalmer-Rajasthan (India) ateratako argazkia. Munduko bigote handiena izan zuenarekin agertzen gara argazkian.. /Argazkia: Konsuelo Zugasti /Arrasate




**ZAHARA DE LOS ATUNES.** 2009ko uztaile hasieran ateratako argazkia. Eguzkixa ezkututzen, etxeko terrazatik etarata. /Argazkia: Jone Albeniz /Bergara



**IRISTUA.** 2009ko ekaineko ekaitz baten, iristua Udaltxeko puntan. Udaltxeko gurutzean joten duela iristuak, eta gainera "txispa" bat ere ateratzen du. /Argazkia: Luis M. Mendarozketa /Arrasate



**ORDESAKO PARAJE EDERRAK.** Aurtengo abuztuan aterata dago argazkia Ordesan. Ikaragarria izan zen azeri-buztan bezalako ur jauzia ikustea. /Argazkia: Olatz Telleria /Arrasate



**LAKI.** Laki-ko kraterrak, Islandia. 2009ko Uztailearen 15ean. 1783-1784ko erupzio bolkaniko batek 50 km-ko fisura bat ireki zuen lurrian eta bertatik laba irteten hasi zen. Erupzioaren ondorioz, 50km-ko fisura linealean 100 kono bolkaniko baino gehiago altxatu ziren. Erupzio hark, paisaia ikusgarri hau sortzeaz gain, 10.000 islandiar baino gehiago hil zituen. /Argazkia: Ion Ruiz de Egiño Azkarat /Bergara



**BOLTAÑA INGURUKO ERREKA.** 2008ko udan Boltaña inguruan ateratako argazkia da. Bertan Boltaña ingurutik pasatzen den erreka bat ageri da. Hau ere guztiz zoragarria. /Argazkia: Maddi Garro /Aretxabaleta

Babeslea:



Laguntzaileak:



**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51



**NON:** Bergarako gaztetxean.

**EGUNA:** Zapatua, urriaren 3a.

**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.

**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Txapa Irratiak maila handiko taldeak eraman ditu Bergarako gaztetxera; eta hala ohituta gaitu. Hala, oraingoan ere talde interesgarriak eraman zituen *karzelako* agertokira.

Angiolillo anarkista (eraikin horretan preso izan zutena) gogorra ekarri zuten sarreran oparitu zizkiguten *pin*-ek eta horren irudiaren ondoan taldeen izenak zetozen: El Desván del Macho eta Capsula. Biak izen handikoak eta euren estiloetan, puntakoak.

El Desván del Macho 90eko hamarkada hasieran sortu zen Arrasaten eta oso talde klasifikagaitza da. Are gehiago, urte askotan isilik egon ostean, iaz agertokietara itzuli ziren oso denbora gutxirako, bateria jotzaile barik gelditu zirelako.

**TALDE KLASIFIKAGAITZA**

Bergarakoa *bigarren* itzulera honetako bigarren kontzertua izan zen, eta taldeko gidari J.G. Izkuek (ahots eta gitarra jotzailea) Jonas eta Jabi taldekideak estreinatu zituen; biak, itzelezko musikariak.

*Vida a partir del huevo* izeneko hirugarren lana aurkezteko txanda izan arren, *Hermana violencia* eta *Lumbar* diskoetako kantua ere, gordinagoak, ere interpretatu zituzten, zaleen gozamenarako. Baina horietako batzuk eraldatuta entzun genituen.

Melodia eta poesia oso presente daude kantu guztietan, baina intentsitatea, erritmoa eta gitarrasoinu bereziak marka dira baita ere. Hala, gai dira ziztu



Capsula taldeko Martin, gitarrarekin jolasten; eta Coni, entzuleei xuxurlatzen, Bergarako gaztetxean.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > EL DESVÁN DEL MACHO ETA CAPSULA

# Introspekziotik ospakizunera

batean after-punketik popera salto egiteko eta hortik post-hardcorera ilea harrotu barik, Euskal Herrian parekorik ez daukan emaitza lortuz.

**ROCKAREN SU GARRAK**

Horien ostean, Bergaratik urrundu barik, koordinadaz zeharo aldatu genuen. Bilbon kokatuta dagoen, baina hiru argentina-

rrek osatzen duten, Capsula taldeak hartu zuen agertokia. Luza-roan, Martin gitarra jotzaileak eta Coni baxu jotzaileak bilbotar batekin osatu dute taldea, baina orain Bilbon bizi den beste argentinatar bat aurkitu dute.

Capsula da, seguruenik, nazioartean bira gehien egiten dituen Euskal Herriko taldea, eta hori igarri egiten da.

Agertokiari eta ikusleei tamaina hartzen dakite eta instrumentuak menderatzen dituzte. Are gehiago, rock-and-rolla lantzen dutenez, badakite ikusleak berotzen eta dantzan jartzen.

Detroiteko high-energytik hurbil dagoen rock gitarreroa, Rolling Stones-en antzeko lelo itsaskorrek, Velvet Undergrounden misterio kutsua eta psikode-

lia... horiek dira taldeak dituen osagaietako batzuk; eta, jakina, horrela, ikusleak *harrapatu* egiten ditu.

Conik eta Martinek mikrofonoa partekatu egiten dute eta, ingelesa erabilia, *feeling* eta bizitasun handiko kantu rockeroak abesten dituzte, ezer asmatu gabe, sinesgarriak. Su garrak botatzen dituen talde bizia!

MUSIKA > BELCEBLUES

# Hirukoaren eraginkortasuna

**NON:** Aretxabaletako Arkupen.

**EGUNA:** Zapatua, urriaren 3a.

**ESTILOA:** Bluesa eta rocka.

**IRAUPENA:** Ordu eta 40 minutu.

TXUS GUTIERREZ > ARETXABALETA

Jende gutxi batu zen kontzertuan. Hala ere, hirukoteak emanaldi bikaina egin zuen eta ikusle ugari egongo balira moduan jokatu zuen. Txalotzekoa!

Hirukotea oso sasoi onean ikusi genuen eta, Arkupeko akustikak lagunduta, soinua ederra izan zen.

**HAIZEZKO INSTRUMENTUEKIN**

Belceblues taldeak ohikoa duen moduan, bluesa eta rocka batu zituen, ingelesa eta euskara tartekatuz. Horrez gain, beste artista batzuen bertsioak ere eskaini zituzten. Horra hor, Jimmi Hendrix, Steve Ray Vaughan, BB King eta beste batzuk.

Are gehiago, emanaldia bukatu aurretik, azken hiru kantuetan, tronpeta, tronboi eta bi saxofoien laguntza izan zuten, emanaldiari ukitu beroagoa emateko asmoz; baita lortu ere.

Aipatzeko, baita ere, Asier baxu jotzaile eta abeslariak kantu baten tronpeta hartu zuela; eta beste baten, armonika. Entzuleek eskatuta, bisak ere jo behar izan zituzten.



Belceblues hirukotea bluesaren *trance* une baten Aretxabaletan.

J.ARANTZABAL



J.ARANTZABAL

## Dayna Kurtzen indarra eta lilura

Aurreikuspenak handiak ziren eta Dayna Kurtz ikusteko jakin-mina ere ez zen txikia; hala, ohikoa baino jende gehiago batu zen Amaia Udal Antzokian. Eta, dudarik ez, AEBetako musikariak zeharo asetu zituela batutakoak. Bluesa, jazz, folka, Ameriketako sustraiak, talde oso dotorea eta arima handiko ahotsa.





sudokua

	8	6		4		5		
9	2							6
5								4
4		9	8	2	7			6
	7		9	5	6			
						2		7
			7	3	8			9
				6	4			5
							7	3

bila-bila 7




hitz gezidunak

	* Bergarako etxea	Prestatu	Konakriako
	Jaungoiko	Itoarazi	Adaxka
	Kolore mota		
	Ipar EH, tiratazile		
Hobe	Zauria		
... Batasuna, SEBS ohia	Sioinaren aral		
		Uribe Kosta	
		Funtzio trigonometriko	
Espainiako hiria			Röntgen
Lau			Poesia mota
		Atomo kargadun	
		Kanpo, landa	
(errep) barrea adierazteko	Angarila		
Biriatuko	Bokala		

GOIENKARIA

soluzioak




D	E	S	J	E	D	A	L	T	Z	A	G	A	G	E
L	U	L	J	K	F	A	R	A	J	U	E	N	K	
X	F	A	T	E	L	O	L	E	M					
L	A	L	L	E	H	E	L	L	A					
S	U	S	O	E	X	E	O	U	S					
O	F	O	X	M	J	M	X	O	F					
K	N	K	A	R	A	J	U	E	N	K				
M	E	M	E	Z	U	N	R	E	M					
E	G	E	A	L	T	Z	A	G	A	G	E			

Hieroglifoa: Marrubia.

hieroglifoa

Fruta gorri-gorria.



hizki salda

Aramaioiko bost auzoren izenak.

A	L	T	Z	A	G	A	G	E
N	G	E	Z	U	N	R	E	M
B	A	R	A	J	U	E	N	K
S	N	E	T	J	M	X	O	F
D	T	O	E	X	E	O	U	S
S	Z	F	T	H	E	L	L	A
B	A	O	L	E	T	A	F	X
N	G	F	A	K	J	L	U	L
T	A	L	K	A	S	J	E	D

8	6	1	2	9	5	7	3	4
3	9	7	1	6	4	8	5	2
2	4	5	7	3	8	6	1	9
6	5	8	4	1	3	2	9	7
1	7	2	9	5	6	4	8	3
4	3	9	8	2	7	1	6	5
5	1	3	6	7	2	9	4	8
9	2	4	5	8	1	3	7	6
7	8	6	3	4	9	5	2	1

B	I	R	I	A	T	U	A	R
K	A	R	A	N	D	A		
Z	E	L	A	I	O	I		
B	U	R	G	O	S	R		
S	O	B	I	E	T	U	K	
H	T	R	A	U	M	A		
U	R	D	I	N				
J	A	I	N	K	O			
J	O							

asteko horoskopoa

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Azkenean hel du da espero zenuen momentua. Gura zenuen etxea eros dezakezu. Ahalegina gogorra izan da eta izango da, baina mereziko du.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Aspertuta zabilta, egunerokotasunean murgilduta, eta horren ondorioz, nahiko lur jota zaude. Ahalegindu behar gutxiago egiten eta egunero lagunekin pixka bat iriteten.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Jarri arreta egitasmo handizaleei eta ekonomikoki hobetzeko aukerei, gutxi barru sekulako indarra hartuko dute-eta. Horiek eramango zaituzte nahi duzuna lortzera.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Arazoak ingurukoekin, zure ziurtasun falta dela eta dena txarrean hartzen duzulako. Ahalegindu zeure buruarengan konfiantza handiagoa izaten.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Lagunek ez zaituzte asetzen, beraz aldaketak egingo dituzu arlo horretan. Etxeko apaintetan ere aldaketa txikiak egingo dituzte datozen egunotan.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Laneko etorkizunaren gainean hausnartu beharko duzu, aldaketak proposatuko dizkizutela. Pentsatu zuretako onuragarriak izango ote diren.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Erabakiak zeure kabuz hartu beharko dituzu, eta horrek hasieran urduritasuna eragingo dizun arren, luzera poztasuna emanango dizu.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Seme-alabek ez zaituzte kontuan hartuko lehen bezala, eta ondorioz galduta ibiliko zara eurekin zelan jokatu ez dakizulako. Topatu erabat aseko zaituen eginbeharren bat.

SAGITARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Harreman zoragarria hasteko pertsona bat ezagutu dezakezu. Ez utzi oroitzapen txarrek zorientasun hori hauts dezaten eta ez ezazu amets gaiztorik egin.

CAPRICORNIUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Ohi baino gogo handiagoa izango duzu, aspalditik zenituen egitasmoei heltzeko. Izan zuhurra, zure oldarkortasunaren ondorioz istripuren bat izan dezakezu-eta.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Besteei entzuteko ohi baino joera handiagoa izango duzu, hori dela eta ingurukoek laguntza eskatuko dizute. Lagun iezaiezu, badaukazu gaitasuna-eta.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Nahasmena nagusi. Daukazu ez zaitu asetzen, baina ez dakizu zer nahi duzun. Guztiaren inguruan hausnartzeko une egoia, baina batez ere behararen inguruan.



## berrizakua



**III. Skate Jaia Bergaran.** Herenegun, zapatua, herriko Trukuzikin skate taldeak jaia egin zuen Agorrosingo gunean, Udaleko Kultura Sailaren eta Laino eta Sk8 For Life denden laguntzarekin. Orain arte herriko jaietan antolatu ohi dute, baina aurten hortik kanpo egin eta pozik gelditu dira harrerarekin; inoiz baino jende gehiago batu da eta Gipuzkoa osoak gainera. Patinatzen ibili zirenen artean, sei sari banatu zituzten; hiruna 16 urtetik gorako eta beherakoen kategorietan. Horrez gain, zazpi lagun ibili ziren graffitiak egiten, horietako bat European lehiatzen ibiltzen dena. Djak eta parrilladak borobildu zuten eguna.



**Untzillako jaiak.** Aspaldiko ohiturak ez dira galdu behar, eta hala egin dute aurten ere Untzillako (Aramaio) auzotarrek. Gainera, pozik daude aurten izan duten parte-hartze eta eguraldiarekin. Egubakoitzean 50 bat lagun batu ziren mahaiaren bueltan (argazkian) Joxe Agirre eta Angel Mari Peñagarikanoren bertsoak entzuteko; Jesus Mari Gorosabel ibili zen gai jartzaile. Zapatuan, berriz, meza eta trikitilariak izan zituzten; eta arratsaldean, pailazoak izan ziren txikien gozamenerako; ume ugari batu ziren haiek ikusteko. Untzillako bolo txapelketak ere sona handia dauka eta aurten 50 lagun ibili ziren. Elgoibar-ko Javier Osoro izan zen garailea.

**Ipurdi bistan.** A gripearekin kezkatuta dago jende asko, gripe arruntaren txertoak ere heldu dira gurera, amak ere askotan esaten digu izotza duten edariek kontuz ibiltzeko eta, batez ere, ez hozteko. Hala ere, jaiak eta parranda heltzen direnean, aholku eta ardura guztiak ahaztu eta seriosasuna ere albo batera uzten dugu. Are gehiago, asteburu honetan horretarako aukera asko, ugari, egon dira: Maritxu Kajoi Arrasaten, Oñatiko Errosario jaiak... eta, egia esanda, egunetik gauera hotz-beroak aldaketa handiak egin ditu. Bada, Oñatiko txosnatan lagun koadrila batek hala hartu zuen gure argazkilaria. Ikusi behar gaur zelan dauden!



## kuxkuxeroa



Arritxu Barruso

## Argazki politikak topatu ditut aste bukaeran

**B**esarkada handi bat bidaltzeko aprobetxatu nahi dut kuxkuxeroen zutabetxo hau; besarkada bat atzo Elgetara gerturatutako gudariei, gudarien familiartekoei, gerrako emakumei eta zoritxarrez inolako omenaldirik jaso barik gure artetik joan ziren gudari guztiei. Ez nuen Elgetara joaterik izan baina, **Iker Barandiaranek** idatzitako kronikak hunkitu egin nau, baita Felix Padin gudariaren hitzek ere: "Garaituak izan ginen, baina ez konbentzituak". Elgetakoari justiziaren eta elkartasunaren argaz-

**"Elgetakoari justiziaren eta elkartasunaren argazkia deitu diot, berandu bada ere"**

kia deitu diot, berandu datoren argazkia bada ere. **Maritxu Kajoi** egunean ere erretratu dotoreak ikusi nituen han eta hemen; kasu batzuetan dotoreegiak ere bai nire gusturako. Soineko eta traje barik oñatiarrak ere dotore asko irten ziren kalera **Herri Egunean**. Horrelako jendetza eta den-denak baserritar jantzita... Hori bai argazki polita eta dotorea. Donostian ikastolen jaia ospatu zuten atzo; ez nuen **Kilometroetara** joateko aukerarik izan baina, han ere argazki polita eta hunkigarria topatuko nuen seguruenik. Pentsatzearekin bakarrik ileak puntan jartzen zaizkit: zirkuituan zehar batutako mila-kita pertsonak, guztiak batera, **Laboaren Txoriak Txori** kantua abesten. Kasu honetan argazki mundiala.

**HARTU PARTE!**

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: [astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

## zorion agurrak



**OÑATI**  
**Miguel Angel Guridi**  
Irailaren 28an. Zorionak eta urte askotarako familia danan partetik! Ondo-ondo pasatu eguna baina ez gastatu asko, pintxua zure kontu doia-ta! jaja. Muxu asko danon partetik!



**ARRASATE**  
**Ander Etxagibel**  
Urriaren 1ean, 23 urte. Zorionak, Ander eta Gora Maritxu!



**ARETXABAETA**  
**Manex Beltran de Heredia Altube**  
Urriaren 1ean, 7 urte. Zorionak, mutikote! Patxo bat danon partetik. Alaitz, Eñaut, Monika eta Martin.




**OÑATI**  
**Amets Bikuña Malbadi**  
Urriaren 1ean, 3 urte. Zorionak, pottoko! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Ea opari asko ekartzen dizuten eta tarta goxo-goxua. Izar, aitatxo eta amaxoren partetik muxu handi bat. Muak!



**ARETXABAETA**

**Iñaki Lete**  
Urriaren 1ean, 30 urte. Zorionak, primo. A tope disfrutatu egun hau, 30 urte eztiela egunerok itxen. Egongo gare kafetxua hartzeko. Muxu handi bat etxeko danon partetik.




**ARRASATE**  
**Aritz Tornay Belategi**  
Urriaren 2an, 2 urte. Etxeko morroxo txikiarentzat zorion mila eta laztan bat etxeko guztien partetik.



**OÑATI**  
**Ainhoa Igartua**  
Urriaren 3an, 12 urte. Zorionak, Ainhoa! Ondo-ondo pasatu eguna! Zure familixian partetik.



**ARRASATE**  
**Unax Iñarra Mendizabal**  
Urriaren 3an, 6 urte. Zorionak, sukaldari. Ia noiz egiten dugun beste pastel goxo bat. Muxu asko etxeko partetik, bereziki Gorka eta Aratzen partetik. Oso ondo pasatu, pitxin.



**BERGARA**  
**Ibai Gallastegi Akizu**  
Urriaren 5ean, 3 urte. Zorionak, potxolo! Oin bai daukazula hiru urte. Muxu pila danon partetik, batez be Oier, Amets eta Laidaren partetik. Ondo-ondo pasatu!




**ESKORATZA**  
**Arantxa Aldai**  
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, ama! Ondo pasatu zure egunean. Alazne eta Olaia.



**ARRASATE**  
**Gari Martin Izurategi**  
Urriaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Gari! Luken, amatxo eta aitaoren partetik egun zoriontsua izan zure urtebetetzean. Muxu handi bana.




**OÑATI**  
**Ainhoa eta Maialen Anduaga Elorza**  
Urriaren 6an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bana etxeko partetik.




**OÑATI**  
**Aitor Lete**  
Urriaren 6an. Aitor, urte askotarako, zorionak! Ea zerbait hartzera gonbidatzen gaituzun!



**OÑATI**  
**Bittor Perosterena Egoskozabal**  
Urriaren 7an, 9 urte. Etxeko tanborrerdak gure "zorionak" haundixena. Ondo pasatu! Muxu.



**BERGARA**  
**Telmo Irizar Arzamendi**  
Urriaren 8an, urtebetete. Zorionak, pitxin! Patxo potolo-potolo bat aitatxo, amatxo, Ikatz eta familia danan partetik.



**OÑATI**  
**Jone Anduaga Elorza**  
Urriaren 8an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik.



**BERGARA**  
**Hugo Cachafeiro**  
Urriaren 10ean, 6 urte. Zorionak! Muxu bat aitatxo eta amaxoren partetik. Maite zaitugu.



**ARRASATE**  
**Uxue Iturbe**  
Urriaren 10ean, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Oñati eta Arrasateko familixa eta lagun partetik, mila kilo zorion eta marrubizko bost muxu!



**BERGARA**  
**Martin Lete**  
Irailaren 25ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiaren partez, bereziki Oierren partez.

### ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu:

**Internet bidez**  
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.  
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**  
Mezu bat bidali [zorionagurrak@goiena.com](mailto:zorionagurrak@goiena.com) helbidera.  
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.  
Ordu horretatik aurrera jasotakoak datorren hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## jaiotakoak



**Beñat Hernandez Iturbe**  
Arrasate > 3,610 kilo. Irailaren 29an. Gurasoak: Susana (Arrasate) eta Joxe (Arrasate). Argazkian, Beñat jaioberria, gurasoekin.



**Elbtiui Adam**  
Arrasate > Irailaren 29an. Gurasoak: Ouafae (Maroko) eta Abdoelmajid (Maroko). Argazkian, Elbtiui jaioberria, sehaskan.



**Daniel Guadix Colmena**  
Arrasate > 3,850 kilo. Irailaren 30ean. Gurasoak: Maria (Eskoriatza) eta Luis Daniel (Eskoriatza). Argazkian, Daniel jaioberria, sehaskan lo.



**Naia Gabilondo Kapelastegi**  
Bergara > 3,350 kilo. Irailaren 29an. Gurasoak: Amaia (Bergara) eta Asier (Bergara). Argazkian, Naia jaioberria, sehaskan lo.

**BABESLEA**

# IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Nora Urkia > Moda diseinatzailea

# "Kate handiek guztia uniformizatzen dute"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Madrilgo Cibelesko erakuslehoi txundigarrian erakusti ditu Urkiak haren arropak. Han bizi izandako az gaudituta dago oraindik gazte bergarra. Asfaltuzko ohiana ize-neko bilduma aurkeztu du pasarela entzutetsuan eta, aitortzen duenez, bera ere modaren baso ikaragarrian galduta txiki sentitzen da. Linea propioa amets, bidea zabaltea da Urkiaren ardura orain.**

**Fisika ikasten hasi zinen, baina gero modara aldatu. Batebakeko aurkikunde izan zen?**

Txikitatik izan naiz arropa zalea. Amaren jantziak hartuta jolasten nuen umetan. Bidea jarraitzearen hasi nintzen Fisika ikasten; Zientzia Batxilergoan oso gustuko nituen Matematika eta Fisika. 18 urterekin ere ez nintzen oso jabe benetan zer gura nuen. Unibertsitateko bigarren ikasturtean egin nuen aldaketa, ze ordurako astun egiten hasi zitzaidan-eta. Artean, ez nekien moda ikasketarik zegoenik ere, baina txikitako lagun batek animatuta hasi nintzen, hura Madril zebilen moda ikasten.

**Cibelesen parte hartzeak asko irekiko dizkizu?**

Ez da erraza. Ni, gainera, oso etxezuloa naiz eta mundu honek, nahi eta ez, kanpora begira jartzen zaitu. Baina Euskal Herrian bertan ere aukera egon daiteke. Alde baikorretik begiratu behar zaio, hemen lehia txikiagoa da.

**Baina Zara, Mango eta H&M edonon daude.**

Horri ere aurre egin behar zaio. Denoi gustatzen zaizkigu prezio merkeak eta gainera Paris edo Londresko pasareletan iku-

sitakoak astebetera izan ditzakezu Zaran, puntako moda da eta guztiok aprobetxatzen dugu. Bestalde, egia da kate horiek uniformizatu egiten gaituztela.

**Nola ulertu beharko litzateke moda?**

Norberak bere gustoaren arabera egindako aukeraketa da, espresatzeko modu bat. Senak ere eragin handia du, baita diseinatzaileentzat ere.

**Hain mundu elitista hori jo al du krisiak?**

Susmoa daukat lehen Galliano ala Balenciaga bat erosteko zeukanak orain ere berdin jarraituko duela.

**Eta zuk dirudun horientzat egin gura duzu lan?**

Ez diruarengatik, kalitate eta aukerengatik baizik. Askok miresten dut haien lana. Baina piztu zait barne borroka bat horren gainean, ea modak herrikoitu behar duen edo ez. Agian, sektore txiki batzuentzat bakarrik izan behar du goi mailako moda horrek.




LAUDORIOAK Lehen bilduma lanarengatik kritika oso onak jaso ditu. OIHANE ISASI

TEST-A

**Jaioterrria:** Bergara. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Moda Diseinua, nahiz eta Fisika ikasten hasi nintzen unibertsitatean. **Diseinatzaile bat:** Nicolas Ghesquière benetan dut gustuko. **Film bat:** *Sospechosos Habituales* **Musikari bat:** Frank Sinatra **Modelo edo moda ikono bat?** Marina Perez. **Bidaiatzeko ala ihes egiteko leku bat:** Edozein lekura joango nintzateke. Asia edota Ameriketako Estatu Batuetara betidanik joan nahi izan dut.

ai, ene!



**Sugeekin erlaxatu?**

Masajea ere mundu bat da. Argazkian ikusi daitekeenez, antza sugeekin ere eman daitezke masajeak. Helburua erlaxatzea izaten da, baina, nola erlaxatu daiteke bat gorputzean zehar sugetzar horiek edukita?

<http://www.englishpeople.com>

biharamuna

Marijo Deogracias


Alakrana: alákrana

**J**avier Vizcaynok zuzentzen duen Mas que palabras saioan Alakranaz aritu ziren zapatuan. Legebiltzarkideen tertulian izan zen. Aurkezlea eta **Pastor, Damborenea** eta **Egibar** Alakranaz aritu ziren; **Basabe**, berriz, Alákrana. Atunontzia bahitu zutenetik hainbat bider entzun dugu barkuaren izena, baina gutxitan entzun dut, Radio Euskadiren saioan modun, barkuaren izena euskaraz ahoskatzen; baina hala behar du euskaraz, Alákrana. Gernikan zapatuan Euskal Jaia ospatu zen eta elantxobertarren ondoan tokatu zitzaidan bazkalteza; haientzako ere Alákrana da bahitutako atunontzia. Detalle horrekin akordatu nintzen atzo

arratsaldean, Pais Semanal aldizkarian **Jose Luis Barberiak** idatzitako erreportajea irakurtzen. Euskararen inguruan idatzi zituenak eskandalagarriak iruditu zitzaizkidan; are gehiago, bere asmoa bada asteburuan berriro ere PSEko idazkari nagusi izendatu duten **Patxi Lopezek** jarraitu beharko lukeen bidea markatzea. Giroa berotu nahian segitzen dute batzuek. Gure artean liskarra sortu nahian moduan dabiltzala dirudi, esaten zidan batek asteburuan. Egia da aldaketarako gobernuaren sailburu izar **Ares** bera bakarrik nahikoa liskar sortzen ari dela. Espero dezagun sasoz ohartzea eta benetako elkarbizitzarako pausuak ematen hastea.



eguraldia



MAXIMOA

**+28**

MINIMOA

**+16**

Astea euri arriskuarekin hasiko dugu. Arratsaldean lainoak trinkoagoak izango dira eta gauean euria egin dezake.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)



arotz lanak orokorrean • leihoak • atek • horma-armairuak

**erakusketa eta tailerra**  
san juan 1a • bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxes: 943 76 08 04

**altzari denda**  
ikerleku zeharbidea • bergara  
tel.: 943 03 46 30

